


2009ko martxoa

80. zenbakia

aikar!



txorierriko aldizkaria



Taberna Ibiltaria

Kantu-kantari

Katixa Agirre – Berbalagun martxan – “Literaturia” – Juan Yuste – Iraizoz lagunartea

75 UNTIL BEING CALLED TO THE KAMPUS III SALUDONGONG 2-0011 ZUKRI-A 0000 1400Z CINE-NAK 011010

Abstract The purpose of this study was to determine the effect of a 12-week, low-intensity, supervised walking program on the physical and psychological health of sedentary, middle-aged women. The study was a randomized, controlled trial. The subjects were 40 sedentary, middle-aged women who were randomly assigned to either a supervised walking program or a control group. The walking program consisted of 12 weeks of supervised walking, 3 times per week, for 30 minutes per session. The control group consisted of 20 women who did not participate in the walking program. The subjects were assessed at baseline and at 12 weeks. The walking program had a significant positive effect on the physical and psychological health of the subjects. The walking program significantly improved the subjects' physical health, as measured by the 6-minute walk test, and their psychological health, as measured by the Beck Depression Inventory and the State-Trait Anxiety Inventory. The walking program also significantly improved the subjects' quality of life, as measured by the SF-36. The walking program had no significant effect on the subjects' weight or body mass index. The results of this study suggest that a 12-week, low-intensity, supervised walking program can improve the physical and psychological health of sedentary, middle-aged women.

AMD® K1000-3500e prosesorlar
4 gb-ile 60gb ram
300gb-ile 500gb disk kapasite
Grafik kartlar: 640mb-1gb
Yerleşik ses kartları
15" TFT monitörler
Teknoloji + hızlı güncelleme
SEMIKON İŞİTİM A.Ş. olarak



PVD 399.00 (C)

Index

**STANDARD GENERAL
ECONOMIC SERVICE**

T3400 procesadora
4 gb-ka ddr2 ram
320gb-ko SATA2 disko gogorra
Gorez ikusleko DVD berrargazkia
Tatuaketa irakurgailua barne
15.4"-ko zerbiz LCD pantaila
WIFI - BLUETOOTH -
WEBCAM barne



PVD 479.90 C

Interview Interview:

2. SIMMETRIKANO SAKELERO TELEFONAK FABRIKATIK ISTERANO PREZIDAK

1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020, 2021, 2022, 2023, 2024, 2025, 2026, 2027, 2028, 2029, 2030, 2031, 2032, 2033, 2034, 2035, 2036, 2037, 2038, 2039, 2040, 2041, 2042, 2043, 2044, 2045, 2046, 2047, 2048, 2049, 2050, 2051, 2052, 2053, 2054, 2055, 2056, 2057, 2058, 2059, 2060, 2061, 2062, 2063, 2064, 2065, 2066, 2067, 2068, 2069, 2070, 2071, 2072, 2073, 2074, 2075, 2076, 2077, 2078, 2079, 2080, 2081, 2082, 2083, 2084, 2085, 2086, 2087, 2088, 2089, 2090, 2091, 2092, 2093, 2094, 2095, 2096, 2097, 2098, 2099, 2100, 2101, 2102, 2103, 2104, 2105, 2106, 2107, 2108, 2109, 2110, 2111, 2112, 2113, 2114, 2115, 2116, 2117, 2118, 2119, 2120, 2121, 2122, 2123, 2124, 2125, 2126, 2127, 2128, 2129, 2130, 2131, 2132, 2133, 2134, 2135, 2136, 2137, 2138, 2139, 2140, 2141, 2142, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2150, 2151, 2152, 2153, 2154, 2155, 2156, 2157, 2158, 2159, 2160, 2161, 2162, 2163, 2164, 2165, 2166, 2167, 2168, 2169, 2170, 2171, 2172, 2173, 2174, 2175, 2176, 2177, 2178, 2179, 2180, 2181, 2182, 2183, 2184, 2185, 2186, 2187, 2188, 2189, 2190, 2191, 2192, 2193, 2194, 2195, 2196, 2197, 2198, 2199, 2200, 2201, 2202, 2203, 2204, 2205, 2206, 2207, 2208, 2209, 2210, 2211, 2212, 2213, 2214, 2215, 2216, 2217, 2218, 2219, 2220, 2221, 2222, 2223, 2224, 2225, 2226, 2227, 2228, 2229, 2230, 2231, 2232, 2233, 2234, 2235, 2236, 2237, 2238, 2239, 2240, 2241, 2242, 2243, 2244, 2245, 2246, 2247, 2248, 2249, 2250, 2251, 2252, 2253, 2254, 2255, 2256, 2257, 2258, 2259, 2260, 2261, 2262, 2263, 2264, 2265, 2266, 2267, 2268, 2269, 2270, 2271, 2272, 2273, 2274, 2275, 2276, 2277, 2278, 2279, 2280, 2281, 2282, 2283, 2284, 2285, 2286, 2287, 2288, 2289, 2290, 2291, 2292, 2293, 2294, 2295, 2296, 2297, 2298, 2299, 2300, 2301, 2302, 2303, 2304, 2305, 2306, 2307, 2308, 2309, 2310, 2311, 2312, 2313, 2314, 2315, 2316, 2317, 2318, 2319, 2320, 2321, 2322, 2323, 2324, 2325, 2326, 2327, 2328, 2329, 2330, 2331, 2332, 2333, 2334, 2335, 2336, 2337, 2338, 2339, 2340, 2341, 2342, 2343, 2344, 2345, 2346, 2347, 2348, 2349, 2350, 2351, 2352, 2353, 2354, 2355, 2356, 2357, 2358, 2359, 2360, 2361, 2362, 2363, 2364, 2365, 2366, 2367, 2368, 2369, 2370, 2371, 2372, 2373, 2374, 2375, 2376, 2377, 2378, 2379, 2380, 2381, 2382, 2383, 2384, 2385, 2386, 2387, 2388, 2389, 2390, 2391, 2392, 2393, 2394, 2395, 2396, 2397, 2398, 2399, 2400, 2401, 2402, 2403, 2404, 2405, 2406, 2407, 2408, 2409, 2410, 2411, 2412, 2413, 2414, 2415, 2416, 2417, 2418, 2419, 2420, 2421, 2422, 2423, 2424, 2425, 2426, 2427, 2428, 2429, 2430, 2431, 2432, 2433, 2434, 2435, 2436, 2437, 2438, 2439, 2440, 2441, 2442, 2443, 2444, 2445, 2446, 2447, 2448, 2449, 2450, 2451, 2452, 2453, 2454, 2455, 2456, 2457, 2458, 2459, 2460, 2461, 2462, 2463, 2464, 2465, 2466, 2467, 2468, 2469, 2470, 2471, 2472, 2473, 2474, 2475, 2476, 2477, 2478, 2479, 2480, 2481, 2482, 2483, 2484, 2485, 2486, 2487, 2488, 2489, 2490, 2491, 2492, 2493, 2494, 2495, 2496, 2497, 2498, 2499, 2500, 2501, 2502, 2503, 2504, 2505, 2506, 2507, 2508, 2509, 2510, 2511, 2512, 2513, 2514, 2515, 2516, 2517, 2518, 2519, 2520, 2521, 2522, 2523, 2524, 2525, 2526, 2527, 2528, 2529, 2530, 2531, 2532, 2533, 2534, 2535, 2536, 2537, 2538, 2539, 2540, 2541, 2542, 2543, 2544, 2545, 2546, 2547, 2548, 2549, 2550, 2551, 2552, 2553, 2554, 2555, 2556, 2557, 2558, 2559, 2560, 2561, 2562, 2563, 2564, 2565, 2566, 2567, 2568, 2569, 2570, 2571, 2572, 2573, 2574, 2575, 2576, 2577, 2578, 2579, 2580, 2581, 2582, 2583, 2584, 2585, 2586, 2587, 2588, 2589, 2590, 2591, 2592, 2593, 2594, 2595, 2596, 2597, 2598, 2599, 2600, 2601, 2602, 2603, 2604, 2605, 2606, 2607, 2608, 2609, 2610, 2611, 2612, 2613, 2614, 2615, 2616, 2617, 2618, 2619, 2620, 2621, 2622, 2623, 2624, 2625, 2626, 2627, 2628, 2629, 2630, 2631, 2632, 2633, 2634, 2635, 2636, 2637, 2638, 2639, 2640, 2641, 2642, 2643, 2644, 2645, 2646, 2647, 2648, 2649, 2650, 2651, 2652, 2653, 2654, 2655, 2656, 2657, 2658, 2659, 2660, 2661, 2662, 2663, 2664, 2665, 2666, 2667, 2668, 2669, 2670, 2671, 2672, 2673, 2674, 2675, 2676, 2677, 2678, 2679, 2680, 26



73 00 MPa
Barre

1394



224

**POSTALAGE: RESIDENTIAL BIDDING DELIVERED
BY MAILING FOR MERKE MERKE**

WITTENBERG, M. - 1987

HISTOIRE DES ROIS



PWD 228 90 

PVD 129.00

TURN OUTSIDE WHEN IT BECOMES TOO DARK

THE 1990S

TV LCD 32" AUG




TOT
INTEGRATUA
2 indur



PWD 189,90 €

PVD **349,80 €**

1000 M HAINO GORRISO DUNE TERRITZURA
RPM INFORMATIKA HANDIZKARRAK
FINDA PULIZONIA ZE 3 PAR - ZEMUDU-



TEL: 844 571 5441 - helpdesk@myopenhouse.com

Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jasone Astola, Mireia Sanz, Oihana Astobieta, Lurdes Etxebarria, Gotzon Barandiaran, Karmelo Atxutegi, Maripi Agirre, Inés Serrano, Juan Luis Goikoetxea, Juanxu Bilbao eta Joseba Apezetxea, Oskarbi fotografoak

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu


Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.



ELKARTUEN ERKIDETZA
Hizkuntza Politikaren Nazioartekotasuna



diruz lagundutako aldizkaria

12 Katixa Agirre



16 Berbalagun egitasmoa, martxan



28 Juan Yuste, aktorea



24 "Literatura", Larrabetzun



30 Iraizoz lagunartea



AURKIBIDEA

- 4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
- 12Gurean izan da... Katixa Agirre
- 14Gaztea eta... Amaia Ginea
- 16Berbalagun egitasmoa, martxan 22Publierreportajea
- 24"Literaturia" Literatura Azoka, Larrabetzun
- 26GAP programa 28Juan Yuste 30Iraizoz lagunartea
- 32Baserri mundua 33Teknologia
- 33Txorierri ezagutu 35Antxinako argazkia
- 36Sukaldaritza 37Denborapasa 38Agenda

ZANUJIKO ESTANBUA

Tafakook. (libroa eta operak)



Tafakook. (libroa eta operak)
Tafakook. (libroa eta operak)

DAUTUEGA - TALOHU-DEINA

Ruben

Literaturia/Literatura Filmak, 5 - Tf.: 94 452 34 47
Aurkibidea (Nizkara)

MAIHIKIDAK INTIMAKIDAK
EMPIRISTAKU INTIMAKIDAK
SANTEN MANTENIMENDUA
SPRITZU TEKNIKAK

Ronda (Mena) 750 Mena (Mena) 750 Mena (Mena) 750
Taf. 094521644 Mena (Mena) 750 Mena (Mena) 750

Sarri entzuten dugun aditza da hau, uztartu. Antzina, (b)uztartu, idi pare-a edo behi pare-a (b)uztarrian jartzea zen, baina gure gizarte moderno eta aurrerakoi honetan lana eta familia dira uztartu beharrekoak.

Hala ere, labor geratzen gara bi hauek aipatzean, lanaz eta familiaz gain, zaletasunak, lagunak, eta beste hainbat kontu ere uztarri horretara sartu behar direlako. Batez ere, emakumeen kasuan, uztartze lan hau egin egiten da, baina ez dakiguna da zelan, etxetik kanpoko lanaz gain, sarri etxekoa ere haien gain dagoelako. Etxetik kanpoko jardunaldia egin ostean, etxeko ardurak, garbiketak, erosketak, seme-ala-

“‘Traultza txikiak’ aspaldi hazi arren, emakumeok oraindik ere badugu zer hobetu, etxeko lanak egin ondoren, urrunagora indartsu jotzeko”

Lorpen handiak egin ditugu emakumeok etxetik kanpoko lan munduan, batez ere mendebaldeko herri garatuetan; ekialderantz eta hegoalderantz begiratuko bage-nu, ezin izango genuke gauza bera esan, zoritxarrez.

Europar, emakumeak eta lanari dagokienaz, iraultza handienak eginda daudela ematen du, baina gero egunerokora, etxekora, hemengo iraultza txikiak, oraindik ere egiteko ditugula uste dut.

Oraindik ere ohikoa da, adi egonez gero, emakume gazteak protestaka entzutea, nekatuta daudela, ia bazkaldu barik umeen bila eskolara, gero haiekin arratsalde osoa, eskolaz kanpoko jardueretara eramane behar direla, etxerako ekarri duten lana egiten lagundu behar zaiela, afariak...

Exeko arduren banaketa egin gabe dago familia askotan; hobeto esanda, egin da dago, baina emakumeak hartu du bere gain logistika, hau da antolakuntza guztia, baita lan praktikoa gehiena ere. Antolakuntza diot, askotan erosketak egitera joatea ez delako lan neketsua, erosketa-zerrenda goitik behera eginda utzi badizute, edo ez

da hainbesterako txikiak eskolara eramatea, prestatuta utzi badizute zer jantzi, zer eman gosaltzeko, motxila guztiak eta enparauak, edo pediatriarenerako joan-etorria ere egin daiteke, baina nork du buruan, noiz duten umeek errebisioa, edo bakunak eta abar? Askotan emakumearen nekea psikologikoa da, bere lanaz eta arduraz gain besteenak ere bere gain daramatzalako.

“Iraultza txikiak” aspaldi hazi ziren emakumeen artean, baina asko aurreratu arren, oraindik ere badago zer hobetu norberaren inguruan, etxeko lanak egin ondoren, urrunagora indartsu jotzeko.

2008. urteko maiatzean “Nahiko” programa aurkeztu genuen Man-komunitateko ikastetxeetan. Esko-la-programa hau Emakundek bultzatu du, eta emakumeen aurkako indarkeria-ren prebentzioa hezkuntza-komunitate-tik lantzea du helburu.

Programa, ikasturte bitan zehar (2008-2010) garatuko dena, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleei dago zuzenduta eta Zamudio eta Lezamako herri ikastetxeetan emango da. Esperientzia pilotua da gure erkidegoan eta esku-hartze global bat dakar, zeina hurrengo ardatzetan egituratzen baita: irakasleen prestakuntza, ikasleen senti-

bilizazioa eta familien sentsibilizazioa.

Nire iritiz, hau bezalako esperientzia motak ezinbestekoak dira aniztasunari eta berdintasunari arreta-printzipioan oinarritzen den eskola-ereduan. Ikasleen pertsonalitatea osatzeko funtsezkoak diren bideetariko bat eskola da, ideiak eta portaerak helarazten dizkie-eta. Sinesmen-sistema eragile giltzarria da sexismoaren agerpenean, emakumeak diskriminatzen dituen eta indarkeriaren erabilera legitimatzen duena.

Espero dugu hau bezalako programa itxaropentsuak lagungarri gertatuko direla giza eskubideetarako, emakume-



MIREIA SANZ
(Drogamenpeketasunen Prebentziorako
Txorierriko Mankomunitateko teknikaria)

en giza eskubideak espresuki kontuan hartuta.

luz zamudio
 FOUNDED PARTNER, PARTNER
 SOUTHWEST CORNER, 1 (partner)
 SOUTHWEST CORNER, 2 (partner)
 2011-12-15 (partner) (partner)



**soiko
TABERNA**

*Lebersteine, Leberkäse,
Gnallkase*

www.soikotaberna.com

Öffnungszeiten:
Dienstag - Sonntag

Spezialitäten:
• Lebersteine
• Leberkäse
• Gnallkase
• Brotzeit

17. November 2017 • 10.00 - 18.00 Uhr • 089 93 12 12 12 • 089 93 12 12 12 • 089 93 12 12 12

 **Vertigo**
CONSIGLIO PERE PASTOR
L'AMORE È IL MIO CANTO

BO DENTON - NANCY AGUIA - LA ANITA KUBARKA

Poligono Tamelaraço 7-8-9
40120 CAMBILÉ (BOLOGNA)
e-mail: gruppo@vertical.it o info@vertical.it
Tel. 041 452 22 55 - Fax 041 452 22 34

Lezama Bizirik elkarteak herriko zubiak bisitatuko ditu urteko batzarrean

Lezama Bizirik auzo elkarteak urteko batzarra egingo du martxoaren 28an. Herri ekimen batek emango dio hasiera egunari. Goizeko 10etan, Lezamako plazan batu, eta handik herriko zubi bi bisitatzera abiatuko dira: Angetuko zubi eta Gurtubiko zubi. Historia handiko zubiak dira eta, elkartearen ustez, arriskuan egon litezke. Angetuko zubi Kurtzeko industrialdetik hurbil dago eta elkarteak beldur dira han egiten ari diren lanek ondorio txarrak ekarriko ote dizkioten zubiari. Gurtubiko zubi Goitioltza auzoan dago eta, auzo elkartearen arabera, inguru hori nahiko abandonatuta dago. "Zubi sasi artean dago eta ez da ageri. Sasiak kendu eta ingurunea garbituko dugu". Asier Bidart adituak zubien datu historikoak azalduko dizkie ibilaldian parte hartzen duten lagunei. "Horrezaz gainera, aukera izango dugu indarrean dagoen garapen ekonomikoak gure inguruari zelango eragina dakarkion ikusteko". Zubi bakoitzean kartel bat jarriko dute haren izenarekin. Ekimena



Korrika Kulturalaren barruan antolatu dute.


Beste alde batetik, arrastiko 2:30ean bazkaria izango dute Goitioltzako eskolan, eta arrastiko 5etan elkartearen urteko batzarra egingo dute. Lezama Bizirik auzo elkarteak ekimenetan parte hartzeko gonbita egin die bazkide eta laguntzaile guztiei.

Errioxara eta Iparraldera bidaia

Aurreko urteetan bezala, Beti Lagunak Loiu-ko jai batzordeak bidaia antolatu du Arabako Errioxako upeltegi batera. Bidaia apirilaren 25ean egingo dute.

Errioxara goizeko 9etan abiatuko dira. Federico Paternina upeltegia bisitatu ostean, Zaldibar upeltegian bazkalduko dute. Arrastian, Bastida bisitatu dute eta gaueko 12etan herrira itzuliko dira. Bidaia 55 euro balio du pertsona bakoitzeko. Martxoaren 30etik apirilaren 7ra arte izena eman daiteke Zabalotzeko eskola zaharrean, 11:30etik 13:30era.

Beste alde batetik, Lagatzu euskara elkarteak Iparraldera joango dira apirilaren 18tik 19ra bitartean, Arroeta mendi taldekoekin batera. Apirilaren 18an, Holtzarteko zubi bisitatu dute, eta hurrengo egunean ibilbidea egingo dute Saratik Zugarramurdira, bertako ingurua ezagutzeko. Bidaia 40 euro balio du bazkide, Berbalagun eta 18 urtera artekoentzat; eta 45 euro, bazkide ez direnentzat. Izena ematea apirilaren 6ra arte egin daiteke 94 452 34 47 telefono zenbakira deituta, edo lagatzu@lagatzu.org helbidera mezu bat idatzita.



Zugarramurdi

Garbaitze
Garbaitze
Tel: 945 81 11 11
Fax: 945 81 11 11

ATARKABI
Luzenbidea 14 - 48940 Zaldibar
Tel: 945 81 11 11

Relukeria
Estetika
94 455 81 44
dantza@relukeria.com

ORTOPEDIA-DENTADA
PERU THERAPY
Carra
Luis M. Jaramila
Dentista
Tel: 945 81 11 11

yadra floristas
Mendiola 1-1000 Zaldibar
Tel: 945 81 11 11

Hotel
Jatetxea
Azetxarte

Elle-apaindegia
M^a Antonia Lindio
Tel: 945 81 11 11

Comunicación, Refinanc.
INIGO RAROPNA
Igualdad de Oportunidades
Tel: 945 81 11 11

Tecnología Práctica - Oñate, 200
48970 Zaldibar - (GIZAKIA)
Tel: 94 403 08 00
Fax: 94 403 08 01
e-mail: hotel@azetxarte.com
e-mail: reserva@azetxarte.com
www.azetxarte.com

Hil honen hasierako ekaitzek kalteak eragin zituzten Derion eta Loiun

Ekaitz itzelak izan ziren hil honen hasieran: inizituek, trumoiak, inetasiek eta euriek gogor jo zuten Txorierri. Ekaitzak kalteak eragin zituen Loiun eta Derion.

Haizeak etxe baten teilatu zatia eroan zuen Loiun. Haizeak teila batzuk gogor jaurti zituen haizebean zegoen teilatu zati baten kontra, eta zulo handia eragin zuen

bertan. Eraikinaren azken solairuan ez zen jenderik, eta, horri eskerrak, ez zen zauriturik izan.

Derion ere susto ederra hartu zuten. Inizitu bat Santiago elizaren tximistorratzetik sartu eta elizaren kanpandorrea suntsitu zuen. Harriak teilatu gainera jausi ziren eta kalte handiak eragin zituzten han

eta elizatik hurbil zeuden autoetan. Kanpandorreko eskailerak lurrera jausi ziren, baina ez zen kalte handirik izan elizaren barruan. Derion ere ez zen zauriturik izan.

Beste alde batetik, itzalaldiak izan ziren Zamudion eta Lezaman, ekaitzaren eraginez.

Inizitu batek Santiago elizaren kanpandorrea suntsitu zuen, Derion



Haizeak etxearen teilatu zatia eroan zuen, Loiun



SAGJUEGY

ELIZARRA
Plaza Euzko Lehen 101
48940 BILBAO (Bizkaia)
Tel: 94 493 40 99
www.sagjuegy.com

KIMO

Landmark

LANDART. ATATINGARRIA

Arakile 15 - 48 14000 (Bilbao) 94 42 12 12
(Bilbao) (Gurea)

LUTERIA LEZAMA

ESKALIN
LUTERIA PROTEJA
143

ESKALIN
LUTERIA PROTEJA
143

ESKALIN
LUTERIA PROTEJA
143

ESKALIN
LUTERIA PROTEJA
143

ESKALIN
LUTERIA PROTEJA
143

ALBERTO

Liburuen eta liburuen denda

Tel: 94 493 40 99
www.alberto.com

LIBRERIA SONDIX

LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

Arakile 15 - 48 14000 (Bilbao) 94 42 12 12
(Bilbao) (Gurea)

ASESORIA

L. Fernando Aguirre, e.l.

ASESORIA

Tel: 94 493 40 99
www.aseSORIA.com

AME

Liburuen eta liburuen denda

Tel: 94 493 40 99
www.ame.com

Doyan klubeko neska-mutilek mailari eutsi diote berriro ere

Otsailean Taekwondoko Euskadiko Txapelketa izan zen Etxebarrin kadete mailan, eta martxoan Taekwondoko Open Nazionala egin da Arrigorriagan. Doyan Derioko klubeko neska-mutilek lehiaketa bietan hartu dute parte, eta maila ezin hobea dutela erakutsi dute beste behin. Izan ere, guztira 18 domina ekarri dituzte etxera.

Taekwondoko Euskadiko Txapelketa 1995. urtetik 1997. urtera bitartean jaiotakoei zegoen zuzenduta, eta Doyan klubak 18 parte-hartzaile aurkeztu zituen. Kirolari gehien aurkeztu zuen Euskadiko kluba izan zen. Deriokoek 13 domina lortu zituzten lehiaketan: zortzi, brontzezkoak; lau, zilarrezkoak; eta bat, urrezkoa.

Egun horretan ere Teknikako Euskadiko

Txapelketa izan zen eta han klubeko lau kirolarik hartu zuten parte. Garikoitz Egiartek brontzezko domina eskuratu zuen.

Taekwondoko Open Nazionalan ere emaitza onak eduki zituzten derioztarrek. Openean Galizia, Nafarroa, Murtzia eta Euskadiko selekzioak eta Errioxa, Kantabria eta Euskadiko klubak aritu ziren. Doyan klubetik 10 neska-mutil joan ziren eta lau domina lortu zuten: bi, zilarrezkoak; eta beste bi, brontzezkoak.

Beste alde batetik, klubeko Martin Arranzek Taekwondoko Espainiako Txapelketan parte hartuko duela aipatu beharra dago. Txapelketa martxoaren 28an izango da Calpen, Alacanten.



Hitzordua izan dute euskararekin Eskola Politeknikoan

Txorierriko Eskola Politeknikoko ikasle eta irakasleek Euskararen Eguna ospatu zuten otsailean. Txupinazoak eman zion hasiera egunari. Txokolate beroa eskuan zutela ikasgelen arteko lehiaketei ekin zieten: areto-futbola, txingak, txapel jaurtiketa...

Defentsa pertsonalaren erakustaldia ere izan zen, eta Iker Vergara ikasleak aho bete hortz utzi zituen ikusleak: *beat-box* saioa eskaini zuen eta musika tresna batzuen doinua imitatu zuen, eztarria, ahoa eta sudurra

erabiliz.

Sariak banatu zituzten, eta zozketa berezia egin zuten ikasleen artean: lagun birentzako dastatzeko menua. Horren ostean, bertso bazkaria izan zuten Fikako sagardotegi batean. Jatetxean 126 lagun batu ziren eta Gorka Ostolaza eta Ander Elortegi bertsolariek girotu zuten bazkaria. "Zorionak eman behar dizkiegu ikasle eta irakasleei, denon arteko lanak eraman baikaitu egun hau behar den moduan ospatzera", aipatu dute Eskola Politeknikitik.

Txorierrri Elkartasuna Taldeak badu bere bloga

Harrizulataileen Liga laster hasiko da eta Txorierrri Elkartasuna Zamudioko Herri Kirol Taldeak bloga martxan jartzea pentsatu du. Bloga txorierrriko-harrizulataileak.blogspot.com helbidean dago, baina beste helbide batera jo behar da argazkiak ikusteko: flickr.com/txorierrriko-harrizulataileak.

Blogak helburu bikoitza du: alde batetik, ligaren berri ematea; eta bestetik, gune interaktiboa sortzea Zamudioko harrizulataileen eta kirol honen jarraitzaileen artean. Besteak beste, informazio hau topa daiteke blogean: taldearen historia, komunikabideetan agertutako albisteak, palmaresa, taldeko harrizulataileak eta argazkiak. Edukiak denboraldi osoan zehar berrituko dituzte.

Emakundek aintzat hartu du Behargintzak aukera berdintasunaren alde egindako lana

Emakundek emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren arloko erakunde kolaboratzaile izendatu du Behargintza Txorierrri, eta era horretan aintzat hartu du agentziak arlo horretan eguneroko egiten duen lana. Izaskun Moyua Emakundeko zuzendariak golardea eman dio Bizente Artegoitia Behargintza Txorierrriko presidenteari.

Behargintza Txorierrri diagnostiko bat egin du, bere instalazioetan lan egiten duten emakume eta gizonen egoera ezagutzeko. Era berean, ekintza positiboko plan gintza bat garatu du eta esparru hauetara zuzendu ditu helburuak: kontratazioa, hautaketa, eta langileen sustapena eta prestakuntza. Erakundean egiten diren prozesuak ere berraztertu ditu, neurriak benetan hartzen direla ziurtatzeko. Behargintzak apustu bikoitza egin du: alde batetik, erakundeko zuzendariak prestakuntza aukera berdintasunean jasotzearen alde; eta bestetik, familia-ardurak dituzten langileen lan ordutegiaren malgutasunaren alde. Herri-tarrei zuzendutako berdintasunaren inguruko kanpainak ere jarri ditu martxan.

Behargintza Txorierrri prest dago langileen arteko aukera berdintasunaren alde lan egin nahi duten eskualdeko enpresei laguntza emateko. Baita politika hauek ezarri nahi dituzten udalei eta erakunde publikoei ere.

OBRAS Y REFORMAS
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS
Corroblea
CALLE DE LA VILLA, 10 - 48940 BERRIO
TEL: 945 21 11 11 - FAX: 945 21 11 12
WWW.CORROBLEA.COM

GORBELA NERTZERIA
GARBIA, LIMPIA, ORDINA
CALLE DE LA VILLA, 10 - 48940 BERRIO
TEL: 945 21 11 11 - FAX: 945 21 11 12
WWW.GORBELA.COM

GUZMAN
SERVICIOS DEPORTIVOS, S.L.
CALLE DE LA VILLA, 10 - 48940 BERRIO
TEL: 945 21 11 11 - FAX: 945 21 11 12
WWW.GUZMAN-DEPORTIVOS.COM

Larrabetzuko garraiolari bat gose greban egon da

Miguel Angel Lekue Larrabetzuko garraioliak zortzi egun eman ditu gose greban, Gipuzkoako lankide birekin batera. Hirurak dira Hiru sindikatuko kideak, eta sindikatu horrek, krisia pairatzeaz gainera, 500.000 eurotik 10 milioi eurora bitarteko isuna jaso ahal du. Euren egoera salatzeke, grebari ekin diote garraiolariek. "Ondo" sentitzen dela adierazi du Lekuek, eta baikor agertu da etorkizunari begira.

Gatazka 2008ko urtarrilean hasi zen: Hiru garraioliaren sindikatuak tarifak igotzea proposatu zien kideei, gasolinaren prezioaren igoerari aurre egiteko. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren arabera, Hiruk "oso delitu larria" egin zuen, Lehiaren Defentsarako Legea urratu zuelako. Ondorioz, zigor espedientea ireki dio Hiru sindikatuari, eta isuna ezartzea proposatu du. Azken hitza Auzitegiarena da eta datozen bost hilabeteetan jakinaraziko du erabakia.

Botere politikoa ekonomikoaren menpean

Hauteskunde kanpainan, garraioliariak alderdi politikoekin batu ziren eta euren egoera azaldu nahi izan diete,

baina hiruk baino ez zioten erantzun deiarri: EA, Aralar eta D3M. "Legea txar to dago eta aldatzeko esan genien", esan du Lekuek. Dena dela, Larrabetzuko auzokide horrek ez du konfiantza handirik politikariengan, "argi baitago botere politikoa ekonomikoaren menpe dagoela". "Enpresa handiei ez diete tutik esaten; sindikatuak eta langile autonomoak, ordea, ordaindu ezin dugun egundoko isuna jarri nahi digute". Lekueren iritziz, herritarrek kalera irten beharko lukete egoera horri erantzuna emateko.

Sindikatuaren ustez, "espedienteak ez du ez bururik ez hankarik", eta berehala artxibatzeko eskatu du. Euren hitzetan, isuna "neurrigabea" da. Izan ere, "duintasuna" baino ez dute eskatzen. "Confeskek soldatak apaltzeko eskatzen du eta ez da ezer gertatzen. Guk geure esparruaren urritasuna salatzen dugu, eta ondorio larriak jasotzen ditugu". Isuna jarritz gero, Hiru sindikatua desagertu egingo da, ez duelako nahikoa diru. "Eusko Jaurlaritzak bazkideen ondasunak bahitzeko aukera ere badu, hau da, garraiolari autonomoen alde lan egin duten lagun batzuk lan eta etxe barik gelditu ahalko ziren".



Beitiak eta Okiñenak irabazi dute Lezamako Eskualde Txapelketa

Txapelketak 50 urte bete ditu eta elkartekoek liburu bat atera dute urteurrena ospatzeko

Martxoaren 18an Lezamako Eskualde Txapelketaren finalak jokatu ziren. Promesa kategorian, Jaunarena eta Zabaleta Leitzako bikoteak 22-15 irabazi ziren Mendinietari (Araba) eta Untorioari (Errioxa). Lehenengo mailan, Asier Beitia (Usansolo) eta Okiñena (Iruña) nagusitu ziren, Muguruzak (Bergara) eta Jon Bengoetxeak (Eibar) osatutako bikoteari 22-19 irabazita. Lehia handiko partidak izan ziren biak, bigarren zatian batez ere. "Pilotaririk onenarik" trofeoa Asier Beitiak jaso zuen. Beste alde batetik, Okiñenak finalera lau aldiz ailegatu dela aipatu behar da, eta oraingoa irabazi duen lehenengoa izan dela.

Lezamako Eskualde Txapelketa Euskal Herriko txapelketarik onenetarikoa da afizionatu mailan eta aurtén 50 urte bete ditu. Ondorioz, oso final bereziak bizi dira frontoian. Ibilbide luze honetan, ospe eta maila handiko pilotariek hartu dute parte txapelketan eta horietako asko finalak ikustera hurbildu ziren Lezamara: Iñaki Gorostiza, Pablo Berasaluze, Abel Barriola, Lucio Azkuenaga eta Patxi Atxa, tartean. Jose Angel Iribar Athleticen atezain mitikoa, Manolo Delgado Meco Athleticen prestatzaile fisikoa eta Alaitz Etxeandia Lezamako alkatea ere izan ziren ikusleen artean.

Lezamako Pilota Elkartek liburu bat argitaratu du Txapelketaren urteurrenaren haritik. Liburua finalen egunean aurkeztu

zuten jendaurrean. *Lezamako Eskualde Txapelketaren 50. urteurrena* lanean torneoaren ibilbideari egin diote errepasoa eta, era berean, protagonisten testigantza batu dute elkarriketen bidez: Jesus Aurtenetxe, Josu Zallo, Markel Etxebarria, Jose Juan Esnaola, Juan Martinez de Irujo, Asier Bengoetxea, Ander Oliden edo Pedro Mari Goikoetxea kazetaria, besteak beste. Horrezaz gainera, garai guztietako hainbat argazki jarri dituzte ikusgai. Liburuak babesa jaso du Lezamako Udaletik.



Argazkiak: Joseba Apezetxea, Oskarbi fotoargazkiak



Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Elkarrekin iristeko gogoratu.

Ezkerreko gogoratu.

Plazak oraindik.

Arazoak agur...



902 54 08 54 www.arlan.eus



Tipi-tapa Txorierrirantz dator



Ongi etorria apirilaren 4an, zapatuz, eman-go diogu. Goiz jaiki beharko da, baina mereziko du. Korrikaren 16. edizioa Erandiogoi-kotik sartuko da goizeko 7,45 inguruan, eta handik Larrabetzura abiatuko da. Txorierriko herri eta txoko guztietatik pasatuko da, eta bat egingo du zain izango dituen euskaltzale guztiekin.

Etorri eta joan egingo du euskararen aldeko lasterketak. Kalkuluen arabera, hiru

ordu eskas emango ditu gure bailaran, baina txorierritarrok luzatuko dugu egonaldia hori. Izan ere, eta aurreko alean aipatu bezala, ekitaldi sorta zabala izango da apirilaren 4an, Korrika pasatu ostean. Indarrak berritzeko, hamaiketako eskainiko da herri guztietan eta horren ondoren, kultura ekitaldiak egingo dira.

Sondikan umeentzako jolasak eta tailerrak egongo dira Ikurriña Plazan; eta kari-

katurak, nagusientzat. Zamudion argazki erakusketa egingo dute, eta lezamarrek aktibitate zirkuitu bat atonduko dute bizikletaz egiteko. Pilota partidak ere izango dira eguerdiko 12,30etatik aurrera.

Derion umeentzako tailerrak eta puzgariak antolatuko dituzte eta "batukada" egingo da herriko kaleetatik zehar. Goizeko 11etan kontzertuak hasiko dira Herriko Plazan, Butronian, Habemus Ratas, Ilunpeko Gudariak, Metakbukake eta K6 taldeen eskutik. Larrabetzuarrek kantaldia, enkan-tea, txapelketak eta erromeria izango dituzte egun osoan zehar.

Aipatutako ekitaldiez gain, herri bazkariak eta afariak ere egingo dira martxoaren 27tik apirilaren 4ra bitartean.

Baina ekitaldiak aurretik ere izan ditugu. Korrikaren 16. edizioa martxoaren 6an aurkeztu zen Gurea Aretoan, Derion. Han 120 lagun inguru batu ziren. Arduradunek aurtengo edizioaren zehetasunak azaldu zizkiguten, eta Jon Maiak zuzendutako laburmetraiaren trailerra ikusteko aukera egon zen. Beste alde batetik, egunotan Korrikaren haritik Txorierrin izan ditugun ekitaldien artean hauek aipa ditzakegu: antzerkia, korrika txikia, kuestazioa eta arropa salmenta.

Eta azkenik, ez ahaztu! Korrika apirilaren 5ean ailegatuko da Gasteizera. Hara joateko autobusa goizeko 10:30ean aterako da Txorierritik.

Katixa Agirre, idazlea

“Gure habitat artifiziala etxea da”

Duela sei urtetik Larrabetzun hilero-hilero batzen gara euskarazko literatura zertan den jakiteko asmotan. “Literaturaz berbetan” deritzogu gure irakurle taldeari. Martxoko gure hitzordura Katixa Agirre idazlea gonbidatu genuen kaleratu berri zuen *Habitat* liburua aurkez ziezagun. Ohikoa dugun legez 20:00etan Angulerin batu aurretik, elkarrizketa egin genion Katixari.

Testua: Gotzon Barandiaran

Argazkiak: Elkar, Lurdes Etxebarria



Zeri buruzkoa da *Habitat* (Elkar 2009) liburua?

Izenburuagatik igar daiteke zein den gaia. Gure habitat artifiziala etxea da, etxebizitza da eta horren inguruan daude garatuta ipuin guztiak. Pertsonaia guztiek arazoren bat daukate etxearekin. Ezberdinak dira euren artean, ipuinak bezala, baina oinarrian, denek ezaugarri hori daukate, etxebizitzaren problematika hori.

Esan duzun legez, aldea dago bildu dituzun sei ipuinetako pertsonaia zein testuinguruen artean.

Bai, alde batetik ugaritasun hori nahi nuen, etxebizitza modelo diferente horiek erakustea; bestalde, ez nuen katalogo itxurako batean erori nahi, orduan, oreka horretan, ugaritasun baina ugaritasun ez-bortxatu horretan saiatu naiz. Pertsonaien aldetik, batez ere gazteak izango zirela erabaki nuen, gaztea zarenean etxebizitzaren arazoa inoiz baino presenteago dagoelako edo erabakiak hartu behar dituzulako etxebizitzaren inguruan... baina gazteak nagusi badira ere, bestelako pertsonaia ere sartu ziren: etxez aldatu diren dibortziatuak, alargunak... Pertsonaietan ere ugaritasuna lortu dudala uste dut.

Gazteak dira protagonista nagusi, baina ez da bakarrik gazteentzako. Gazteentzako ere bada, oster.

Bai, egia esan, gazte gazteak ere ez dira agertzen, gehienak 30etik gorakoak dira-eta. Ez da gazteentzat baina uste dut gazteek ere gustura irakurtzeko modukoa dela, batez ere jakiteko zer datorkien etorkizunean.

Testuinguruari dagokionez, egungo errealitateari oso lotuta daude ipuinak.

Bai, oso lotuta daude eta horrela nahi nuen. Gainera, behin etxebizitzaren gaia aukeratuta oso adi egon nintzen gaiaren inguruan gertatzen zena jarraitzeko, bai nire lagunek etxebizitzaren inguruan ko-

“Gazteek ere gustura irakurtzeko moduko liburua da, batez ere jakiteko zer datorkien etorkizunean”





mentatzen zidatenari bai albistegietan ikusten nuenari. Bizi dugun momentu bitxi hau, inoiz ez baita izan horren garesti edo konplikatua etxebizitza eskuratzea, modu argian islatu nahi nuen.

Arnas luzeko ipuinak dira Habitatekoak. Pertsonaien garapenak eragindakoa izan da?

Bai, ipuin luzeak dira pertsonaien garapenerako espazioa behar delako. Lau orritan ezin duzu horrelakorik kontatu, edo behintzat ez da sinesgarria, eta gainera narrazio-

ek eurek, istorioak eurek, luze egitea eskatzen zidaten.

“Literaturaz berbetan” irakurleen bilgunerari etorri zara. Zer deritzezu horrelako irakurle taldeei?

Oso pozgarria da. Alde batetik, idazleak aukera dauka irakurleekin egoteko, irakurleen iritziak bertatik bertara jasotzeko. Bestetik, promozioa lana ere bada, ez liburu jakin batena baizik euskal literaturarena orokorrean. Gaur egun horrelako “klub” askozaz gehiago dago euskaraz gaztela-

“Hemengo erdal idazleek bekaitza handia daukate, “Literaturaz berbetan” bezalako “klub” askozaz gehiago dagoelako euskaraz gaztelaniaz baino”

niaz baino, eta hemengo erdal idazleek bekaitza handia daukate honen inguruan.

Zelan ikusten duzu emakumeen euskal literaturan?

Esan daiteke egoera normalizatuz doala baina ez da guztiz normalizatu zeren beti galdetzen digute honen inguruan, horrek esan nahi du oraindik salbuespena garesti eta oraindik bitxikeria antzeko bat garesti. Dena den zerbait kuantitatiboa da, estatistikoa. Nik uste dut gero eta emakume gehiago etorriko direla, joerak jarraitzen badu horrela izango dela, azkenean benetan normalizatuko denean ez dela faktore bezala hartuko.

Elkarrizketa amaitu ostean gogoratu genuen Katixak baduela irakurleekin harreman zuzena bermatzeko bitartekoa: www.katixagirre.com bloga. Katixari ezer esateko duenak jo beza bertara.




SINBOLOKAKO KULTUR ETXEA
Daxters kalea, 1 (Aldarean-Aldarean)
Telefonoa: 94.453.64.13

ANTZERKIA

Apirilak 25, 17:00etan

ZOO
Yifana taldearekin
6 urtetik aurrerako umeeientzat

12 urte: 3 €
12 urte: 5 €



Beka ORO







Amaia Ginea, futbol entrenatzailea

Oztopoak oztopo

Oso neska gaztea da Amaia, baina ibilbide bizia izan du kirol arloan. Ibilbide hori batez ere futbolaren inguruan atondu du, eta gaur egun Larrabetzuko Urriarren nesken futbol taldearen entrenatzailea da.

Testua eta argazkiak: Maripi Agirre

Zapatu goiza da. Sukaldean nagoela Uritarraren futbol zelaitik datorren zaratsa entzun dut. Leihoa zabalduta eta han ikusi ditut Uritarraren neskak, partidurako beroketa-arietak egiten. Astero gauza bera datorkit burura: "Aititek ikusiko balu". Alaba talde honetako jokalaria delako eta aititek ere lotura handia izan zuelako Uritarrarekin. Baina hau ez da burutik pasatzen zaidan bakarra: entrenatzaile lanetan Amaia Ginea Sagasti dabil. Hogeita bost urteko larrabetzuar gaztea, umea zenetik kirolari lotuta egon dena, eta, nire uste apalean, Uritarren ibilbide luzean historia egiten ari den emakumea. Taldearen lehen emakumezkoen ekipoa

gidatzen, hain zuzen ere.

Amaia txikitatik izan da kirolari amorratua, lehiakorra. Eskola garaiko anekdotak esanguratsua du gogoan: mutilek osatzen zuten futbol ekipoa inoiz "Carlos" izenarekin jokatu izan zuen, bajaren bat betetzeko. Zortzi urtetik hamalau urtera bitartean eskupilotan ibili zen, baina adin honetatik aurrera ez dago neska kopuru nahikorik txapelketak antolatzeke, eta Larrabetzuko Patakon Triatloi Taldean izan zen, hori bizirik iraun zuen bitartean. Ondoren maila erregionalean zegoen Zornotza futbol taldera sartu eta han urtebete eman zuen, harik eta taldea desagertu zen arte. Arratiako futbol taldean ere ibili



Surbau bilderrak: 41 467 80 LOIUMAT • Tel: 94 453 04 51 • Fax: 94 453 25 07 • loiumat@loiumat.com • www.loiumat.com

, aurrera bidean

zen denboraldi erdian, eta ostean, maila nazionalen zebilen San Inazio taldetik deitu zuten Amaia. Ekipo honetan zegoela Euskadiko txapelduna izan zen 07/08 denboraldian. Oztopoz beteriko ibilbidea, egia esan.

Ikasketak ere bide honetatik bideratu ditu, Txorierri institutuan "Natura-ingurune gorputz- eta kirol-ekintzen gidaritza" ikasi baitu.

Ametsari eutsiz

Lezamako Bizia taldean ibili da entrenatzaile, eta gaur egun Larrabetzuko Uritarra taldeko 10 urtetik 13 urtera bitarteko neskak ditu bere ardurapean. Entrenatzaile lanari dagokionez, neskak entrenatzea zailagoa dela dio Amaiak. Euren arteko liskarregatik, berritsuagok direlako eta ohitura gutxi dutelako lehiaketarako diziplinan, besteak beste. Horrek guztiak eta Amaia izaerak talka egiten dute askotan. Halakoetan arnasa hartzen du gazteak, bere ametsari tinko eutsi behar diolako: emakumezkoen kirola bultzatu eta Larrabetzun futbol 11ko taldea osatzea. Bai, ametsa dela dio Amaiak, hori bezalako proiektu bat aurrea ateratzea ez dela erreza izango, badakielako. Lehenengo eta behin, Larrabetzuko biztanle kopurua kontuan hartuta, beste herri batzuetara jo beharko luke jokalaria bila. Eta bestalde, adina ere oztopoa da. Izan ere, ikasketak eta beste arrazoi batzuk direla-eta, nerabezaroan emakume gehienek uzten dituzte mota honetako kirolak, nahiago dutelako beste kirol ekintza batzuetan parte hartu. Ho-

“Uritarren ibilbide luzean historia egiten ari den emakumea da”

“Eskolan, mutilek osatzen zuten futbol ekipoan inoiz “Carlos” izenarekin jokatu izan zuen, bajaren bat betetzeko”

“Larrabetzun futbol 11ko taldea osatzea du amestzat”

riek konpromiso handirik eskatzen ez duten jarduerak dira normalean; gimnasio pribatuak, kiroldegiek eta udalek eskaintzen dituztenak, hain zuzen ere.

Egia aitortu beharra badago, Amaiak ez du etorkizuna oso argi ikusten arlo honetan. Hala ere, argi dauka ekinak zer-bait dakarrela beti, eta bere lana bidean hazi bat besterik ez dela. Ernatuko den hazia, ziur asko.



OSKARBI
fotografak

TEL. 945 500 431 / 945 500 432
TEL. 945 500 431 / 945 500 432
E-mail: oscarbi@oskarbi.com

Wiguri Argel Berde, gortelak
Londres

093 700 700 44 700 00 00

G

TEL. 945 500 431 / 945 500 432
TEL. 945 500 431 / 945 500 432
E-mail: oscarbi@oskarbi.com

URAS

Distrikua eta masajea

Alto Pineda, 14 bisita
94 500 000 000 000 000 000

ELORRIETA
INSTALACIONES

EIDE- EIA INDUSTRIA-
ELEKTRIZITATIA


Urte 1988, 12 bisita Duro 48160
94 434 03 88
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Berbalagun martxan!

Mendi ibilaldiaren 2. etapa. Bilboko hilerria ikusten.

Iraillean hasi zen Berbalagun egitasmoa Txorierrri osoan eta dagoeneko 95 pertsonatik gora dira parte-hartzaileak. Gehienak (% 60) bidelariak dira, hau da, euren euskara hobetzeko mintzapraktika egitera datozenak; eta besteak, (% 40) bidelagunak, euskaraz ondo egiten dutenak eta euskal guneak sortzen laguntzera datozenak.

Txorierrriko herri guztietan daude taldeak, guztira 21 talde daudelarik. Taldeak txikiak dira, bi eta zazpi Berbalagun artekoak, hurbiltasunak berba egiterakoan konfiantza ematen duelako. Astean behin batzen dira, eta talde bakoitzak erabakitzen du, non, noiz eta zer eginez bildu: gehienek kafe bat edo pote bat hartzen dute berba



Esther eta M^a Angelesekin antzerkirako sarrerak irabazi zituzten.

egiten duten bitartean, beste batzuk paseo bat ematera ateratzen dira, edo seme-alabekin joaten dira parkera, edo asteko erosketak egiteko aprobetxatzen dute. Azken baten, dakigun euskara hori eguneroko bizitzara ateratzea da Berbalagunen helburua: kalera, tabernara, dendara, patiora, mendira...

Berba egin, ezagutu eta gozatu

Mintzapraktika egiteaz gain, Txorierrriko Berbalagunek hainbat ekintza antolatzen dituzte elkar ezagutu eta ondo pasatzeko, eta antzerkirako, bertso-saioetarako... sarrerak ere zozketatzen dituzte partaideen artean. Hilero-hilero mendi ibilal-



Argazkiak: Berbalagun

Mendi ibilaldiaren 3. etapa. Zamudioko S^a Tomas ermitan

2017ko 2. etapa
FILM LABURRER EUSKARAZ
 12.03.2017

12.03.2017
BERBALAGUN BIDAIA
 1. etapa, 1. etapa, 1. etapa

Apartekoak: 12.03.2017
 12.03.2017

TXIMINTX
 12.03.2017

urel
 Psikologia Soziala

1. etapa
KONTAKU DOAKO

HAURRAK - NERABEAK - NAGUSIAK - ZAHARRAK
 Berbalagun, grafologia, etab. (partikular eta enpresentzat)

Ureleko Tasa
 1. etapa

12.03.2017



ditoxa egiten dute domeka goizez Txorier-
rin bertan. "Txorierri ermitaz ermita eta
+" izenburua ipini diote hileroko ibilaldi
sorta honi, eta Txorierriko bazterrak eza-
gutzea du helburu. Orain arte, hiru etapa
egin dituzte: lehenengoa, Erandio-Goihe-
rri-Loiu; bigarrena, Loiu-Lauroeta-Derio;
eta hirugarrena, Derio-Geldo-Zamudio.
Ermitaz ermitako ibilbidea egin ez ezik,
bidean topatzen dituzten leku eta eraikun-
tza interesgarriak ere ezagutzen dituzte
ibilaldira datozenek; errotak, dorretxeak,
bunkerrak, aztarna arkeologikoak, eta
abar.

Azaroaren 29an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen zela eta, Berbalagunek triki-poteoa eta luntxa izan zituzten Loiu eta giro ederrean ibili ziren taberna-rik taberna.

Otsaila eta martxo bitartean, errefl-xoterapia ikastaroa egin zuten Sondikan. Hamar lagunek hartu zuten parte eta hain gustura egon zirenez, ikastaroa luzatzea erabaki dute; beraz, apirilean bizkarreko masajearekin jarraituko dute.

Martxoaren 13an, Berbalagunek afari aparta izan zuten Goitoltzako txokoan, Lezaman. Berbalagun batzuk dotore mo-zorrotuta etorri ziren eta hauen artean lehiaketatxo antolatu zen, hiru onenak nortzuk ziren erabakitzeko. Afari gozo-gozoa jan ostean, sari banaketa etorri zen.



Gemma erreflexoterapia irakasten

“Egitasmoak 95
parte-hartzaile baino
gehiago batzen ditu,
eta orotara 21
talde sortu dira”

“ Besteak beste,
ekintza hauek antolatu
dira: ibilaldiak,
zozketak, ikastaroak,
afariak, poteoak...”

Lehenengo saria Lezamako Ingrid Gómezek irabazi zuen; bigarrena, Loiuko Esther Riegok; eta hirugarrena, Sondikako Gemma Verdager i Colomerrek. Afalostea guztiz borobiltzeko, Txan magoaren ikuskizun zoragarriarekin gozatu zuten bertara etorritakoek. Ikusleak aho zabalik utzi zituen euskal mago handiak, eta baieztatu zuen magia ez dela umeen kontua bakarrik. Umore ona izan zen nagusi eta denek primeran pasatu zuten.

Izena emateko

- 635 75 35 95 (Oihana)
- txorierri.berbalaguna@gmail.com
- Txorierriko Mankomunitatea
- Txorierriko euskara elkarteak
- Udal euskaltegia
- Txepetxa AEK euskaltegia




Apirilerako antolatutakoak

–**Apirilak 26:** Mendi ibilaldia, 4. etapa. Zamudio-Lezama-Goitioltza.

–**Apirilak 28:** Bilboko Arte Ederren museora irteera. Museora etorri nahi baduzu deitu: 635.75.35.95 (izena emateko azken eguna apirilak 20).



–**Apirilak 30:** Helduentzako ipuin kontalaria, Iñaki Lasa, 20:00etan Larra-barri Derioko baserrian.



“Gauza txarra dogu: ez dakigu amaituten”

Euskal Herriko tabernarik internazionalena da, Bizkaian, Araban, Gipuzkoan, Nafarroan eta Iparraldean ez eze, Irlandan be eza-gutzen dabelako. Alfonso Atela (Sondika), Martin Urrejola (Zamudio), Sabin Ugarte (Sondika), Isuzko Eizagirre (Larrabetzu) eta Pedro Bilbao (Loiu) Taberna Ibiltariaren Txorierriko partaideak dira, eta eurakaz tabernarik taberna ibili gara kantetan.

Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Lagatzu, I.M.



Zelan sortu zan Taberna Ibiltaria?

Behar kontuak dirala-ta. Gutariko batzuen lankide batek arazotxo bat euki eban eta konpondu zanean... zelan ospatu genduan? Ba, Euskal Herrian egiten dogun bezala, bazkariategaz. Bazkaria Bilboko Alde Zaharreko txoko baten egin genduan, eta bazkalondoa gitarrea atara eta abestuten hasi ginan. Txokoa txiki lotu jakun ordu gitxitan, eta poteoa egitea pentsatu genduan. Tabernaz taberna ibili ginan abestuten, gitarra eta guzti. Tabernetan topaten genduan jentea be animatu, eta hurrengo tabernara lagunduten euskuen. Oso gustura izan ginan eta halangoak gehiagotan egin behar genduzala pentsatu genduan, hilabete birik behin-edo.

Proiektua parranda baten hasi zan itxurea hartuten, beraz.

Bazkari honeetara lagunak be hasi ziran etorten eta akabuan 18 pertsona lotu gara taldean: Txorierrikoak, Bilbokoak, Armintzakoak, Bakiokoak eta Elorrikoak. Guztiok gustetan jaku abestutea eta euskaltzaleak gara. Beno, euskal abestiak kantatuten doguz gehienbat, baina "bero" gagozanean erdaraz be abestuten dogu bateren bat: Fitoren Soldadito mariner... eta iraultzaileak be bai: Che Guevara, adibidez. Musikari profesional bakarra Isusko da, baina musika-tresnak ondo baino hobeto jotzen dabezan kideak be badoguz: gitarra, perkusioa, soinua, txirula, trikitixa...

Eta nondik dator izena? Oskorraren Pub Ibiltariagaz nahastu leiteke...

Ez da guk asmatutakoa; imini egin deuskue. Mungiatik ibili ginan behin eta horren barri emon eben bertako aldizkarian. Artikulutxoan Taberna Ibiltaria esan euskuen eta gustatu egin jakun. Azken baten oso ondo islatzen dau gure helburua: euskal kantuak tabernaz taberna abestu eta jentea anima daitela gugaz abestutera. Hau da, Euskal Herrian izan dogun tabernaz taberna kantatuteko ohiturea berpiztutea... Dandala, pubaren kategoria ez dogu, e! (kar, kar).

Berez sortutako ekimena bada be, eta dozuen arrakastea ikusita, proiektuaren ardatzak ezarrita izango dozuez, ezta?

Bai zera! Asko gara eta bakotxak bere kontuak ditu: beharra, familia... Ondorioz, ezin deusagu denbora haundirik eskaini honi. Gaur egun herrietatik deitzen deus-

kue hara abestutera joateko, baina hasiera baten guretzat bakarrik egiten genduan. Geuk erabagiten dogu nora joan, eta gure inguruan batuten dan publikoaren artean abestien letrak banatuten doguz, eurek be kantatuteko. Entsegurik? Ez dogu inoiz egin. Kalean edo tabernetan eskainiko doguna bazkalostean zehazten dogu apur bat, eta kito.

Zelango harrerea izan dau proiektuak jentearen aldetik?

Pozarren hartuten dabe eta abestera ani-

“Tabernaz taberna kantatuteko ohiturea berpiztu gura dogu”

“Gure jatorrizko lekua jente-artean dago; ez gagoz erosoegi eszenatokiaren ganean”

matuten dira. Baina guri bardin deusku herri baten 10 pertsona lotuteak, eta beste baten 4.000 lagun. Guk ondo pasatuteko egiten dogu, besterik ez; batuten dan lagun-kopuruari erreparatu barik.

Tabernaz aparte, beste eszenatokiak be euki ditu Taberna Ibiltariak: plazak eta Bilboko Kafe Antzokia, esate baterako. Zeinetan zagoze erosoen?

Gure jatorrizko lekua jente-artean dago eta ez gagoz erosoegi eszenatokiaren ganean. Alde batetik, konturatu garaleko eszenatoki baten egonda jentea guri entzuten paraten dala, eta ez dauala parte hartuten saioan. Eta, jakina, Benitoren abestiak Benitok abestuten ditu inork baino hobeto! Gure helburua ez da jenteari guri abestuten entzutea, gugaz abestutea baino. Eta bestetik, bildurra emoten daualako mikrofono aurrean imintea. Tabernan edo kalean ez dozu mikrofonorik behar eta jentearengandik hurbil gagoz; eta jentea, gugandik.

Handiegri bihurtu da lagunarteko proiektua zana?

Gitxi arte ez dogu dirurik kobratu gure saioen truke. Baina joan dan urtean akordau ginan Boisera joan behar ginala nahitaez, bertako Euskal Jaian parte hartutera. Dirua behar dogu bidaia ordainduteko, eta



horregaitik hasi gara dirua kobaratuten emonaldietan. Tarifea ekitaldi motaren arabera ezarri dogu... Eta ganera, beste konpromiso bat dogu orain: Valentziara joan behar gara Athleticagaz! (kar, kar). Proiektua handiegi bihurtu dan? Beno, mugak geuk iminten doguz eta ailegatu ezin garenari ezetz esaten deusagu... Egia esan, leku guztietara ailegatuten saiatuten gara beti! (kar, kar).

Gizonezkoak zarie guztiak...

Bai, baina ez deusagu inori ezetz esaten. Saiotara familia osoa etorten da: emaztea, seme-alabak... Dublinera, adibidez, 48 lagun joan ginan. Zaharrenak 60 urte eba-zan; eta gazteenak, 6.

Zertara joan zan Taberna Ibiltaria Irlandara?

Akordau jakulako. Kultura musikal haundia dabe han eta bertara joatea okurritu jakon gutariko bati. Beste guztiok baietz esan geuntsan. Billete merke bat erosi eta 2007. urteko urriaren zubian Dublinera abiatu ginan. Mundiala izan zan! Baina arazotxo bat dogu orain: irlandarrak ganean dogoz, ea noiz itzuliko garan! (kar, kar).

"Flipatuko" eben...

Ostatua hirigunetik urrun egoan hotel baten hartu genduan. Hirigunerako autobusa hartu eta, kaletik be ez dakigunez abestu barik ibiltzen, parrandea autobusean bertan hasi behar izan genduan. Txundituta egoala, bulego nagusira deitu zuen gidariak, gertatzen ari zanaren barri emoteko. Autobusetik jaitsi eta Philip Lynott abeslariaren estatuaren onduan imini ginan kantaten. Jentetza haundia lotu zan gure inguruan. Publikoaren artean pub bateko bat egoan eta bere lokalera joateko proposamena egin euskun. Hurrengo egunean hara joan ginan. Baina bidea ez genduan alkarregaz egin eta partaide batzuk Euskal Herriaren aldeko manifestazio



bategaz egin eben topo. Logikoa denez, manifestazioan parte hartu behar... Tabernara manifestazioa antolatu ebenakaz ailegatu ziran eta aho bete hortz itxi genduzan. Ganera, horreetako baten ama Al-gortakoa zan, eta bera liluratuta ebilen. Bueltatutea gura dabe, eta bueltatuko gara. Baina hobeto antolatu gura dogu.

Euskal ia geografia osotik ibili zarie kantetan, eta euskal ia geografia osotik deitu deusue.

Iaz Baigorriara joan ginan Nafarroaren Eguna, Zamudioko talde batzukaz. Bertan badago talde bat, Baionan Kantuz, eta eura-kaz ibili ginan kantetan... zoragarria! Kontua halan izan zan: herri bazkarian gengoza, mahikoen artean Bizkaiko talde abeslaria egoala aitatu eban batek, eta eszenatokira igoteko. Guk kondizinoa imini genduan: gugaz abestu behar ebela. Eta eskandalua izan zen, 2.000 lagun batu ginalako kantaten. Eszenatokitik bajatu ezinik! Aurten Baigorriara itzuli beharko!

Non hartu zaitue ondoen?

Ez dogu ezbardintasunik sumatu herri bateko edo besteko publikoaren artean. Herri guztietan galdera bi egiten deus-kuez: Nondik agertu zarie? Eta, noiz zatoze osterabe? (kar, kar).

Zelango errepertorioa dozue?

Danetarikoa. Ohiko abestiak (Txalaparta, Mundurat...) zein modernoak (Fitorenak, Ken Zazpirenak...). Behar pedagogikoa be egiten dogu, kantuen nondik norakoak azalduten deuseguz-eta publikoari. Eta orduak be eragin handia dau gure erreper-torioan... Izan be, gauza txar bat dogu: ez dakigula amaituten! (kar, kar). Inoz 12 ordu emon doguz abestuten... Badakizue, gustura zagozenean, ez zara kantsaten.

Zein adinetakoak zarie taldekideok?

Gazteren bat baduogu be, gehienok 40 urtetik gorakoak gara. Errepertorio ezbar-di-

2012z
Gerentzia berria

Maneak eta karta berriak
Gazteak eta ikasleak
Aldizkariaren berriak, egunkaria

Informazioa 2012z eta 2013z
2012z eta 2013z
2012z eta 2013z
2012z eta 2013z

XENON
Klaseko zerbaitak 5.1.

... eta ...
... eta ...
... eta ...
... eta ...

... eta ...
... eta ...
... eta ...
... eta ...



na topatu behar da eurentzat. Orozkon, adibidez, gazte asko bildu genduan eta pozik ibili ziran gugaz.

Anekdotak asko eukiko dozuez...

Bai! Oinezkoentzako kale baten imini gitan kantetan Gernikan behin, eta auzokide batek udaltzainei deitu eutsen. Udaltzainek diru eske gengoza pentsatuko eben, beharbada, eta ailegatu ziran harrিতuta lotu ziran: 200 lagun inguru gengoza han abestuten! Gu bertatik botatzera etorri ziran zurrumurrua zabaltu eta garrasika hasi zan jentea: "Honeek ez dabe hemen ezer agintan! Doazela kanpora!". Egundoko iskanbila sortu zan; eta udaltzainak eskapau egin behar! (kar, kar).

Posible ikusten dozue urteetan desagertuta egon dan ohitua berreskuratuta?

Bai, herrietan gero eta talde gehiago dagoz tabernaz taberna abestuten ibiltzen diranak: Gernikan, Erandion, Santutxun, Iruñean, Donostian, Biarritzen... Guk harremana dogu guztiakaz. Birusa izatea gustatuko litzakigu eta gure moduko talde gehiago atara daitela!

Beste alde batetik, musikeak oso ezaugarri

berezia dau: ondo pasateko balio izateaz ganera, helarazo egiten dau. Abestiek badabez esangura eta sentimenduak; eta sasoi konkretu batekoak dira. Abesti bat entzuten dogunean abestia bera ez eze, egoera bat eta sentimendu batzuk be etorten jakuz burura. Are gehiago, kantu batzuk ez dabe esangura galdu oraindino... Minutu batzuetan urte pilo bat kenduten

“Birusa izatea gustatuko litzakigu eta gure moduko talde gehiago atara daitela!”

“Euskeraz kantetan be egiten da euskerea”

doguz ganetik; gaztetu egiten gara.

Eta aukeratu behar izatekotan, zein abesti aukeratu zeunkie lehen aitatu errepertorioetik?

Aukeratu doguz! Dirulaguntzak eskatuteko asmoa dogu Idahora joateko, eta make-ta bat grabatu dogu. Kantuak guztion artean aukeratu doguz: *Eperra*, *Xalbadorren heriotza*, *Baratze bat* eta *Azken agurraren negarra*. Mungia musika eskolan estudioa inprobisatu eta maketea bertan grabatu dogu. Emoitza polita lortu dogu.

Estudioan sartuta, diskoa grabatuten, ikusten dozue zuen burua?

Baleiteke! Oso gustura ibili gara maketea grabatuten eta esperientzia ona izan da. Halanda be, freskotasun apur bat galduten da estudioan... Guri gustetan jakuna kalean kantatutea da, jentearengandik hur ego-tea eta gugaz abestu dagiela. Eta horretan, hain zuzen be, datza gure arrakastea. Martia, esaterako, saioz beteta euki dugu: Athleticen lagunartean batzarra, Korrika... Euskararen aldeko ekitaldi guztietan hartuten dogu parte. Izan be, euskeraz kante-tan be egiten da euskerea.

Hästens

denda

Cuñan amabakero chak

www.hastens.com

ARTEAGA koltxoi-denda

Deriska Sektoria • 94 454 51 47 • DERIO



Pisua galdu; osasuna irabazi

DISPRONAT enpresa 1987. urtean eratu zen, eta handik hona elikagaigintza ekologikoko produktu, osagarri dietetiko eta kosmetika naturalaren banaketan dihardu, besteak beste.

Eskarmentu handia dute dietetika arloan eta, horregatik, gero eta bezero gehiagoren konfiantza irabazi dute. Konfiantza horren eraginez, produktuak erosi ez ezik aholkuak eta beste zerbitzu batzuk eskatu ere egiten dituzute bezeroek.

Duela urte bi bezeroek eskatzen zuten

jarduera berria sartu dute euren zerbitzuen barruan: "ORIENTABIDE DIETETIKOA". Eta horretarako, proiektu berria sortu dute: SBELTARY natural diet.

ZER DA SBELTARY NATURAL DIET?

XX. mendeko azken hamarkadetan gizarteak bilakaera handia izan zuen osasun arloan. Osasuna gaixotasunik eztat hartzen zen lehen eta gaur egun, berriz, ongizate fisiko, mental, sozial eta emozionaltzat jotzen dugu.

Loditasuna, estresa edo elikatzeko-ohitura txarrak prebenitu eta kontrolatzea oso jarrera positiboak dira, bizitza osasuntsuagoa izateko.

Ohitura horiek hobetzeko orientabidera, hain zuzen ere, zuzentzen du SBELTARY metodoak bere eginkizuna. Giza Elikadura eta Dietetikan diplomatuta dauden dietistak dituztela, kalitatezko zerbitzua ematen dute, pertsonalizatua eta segurua. Euren kontsultetara jotzen duten lagunek izugarri baloratzen dute zerbitzu hori.

Txorierriin leku hauetan eskaintzen dute zerbitzua: Bustamante Parafarmazian, Derion; eta Larradent Poliklinikan, Larrabetzun. Kontsulta Balmasedan, Basaurin, Galdakaon eta Azpeitian ere badute.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Eskaera berriak sortzen ari dira SBELTARY dietetika-zerbitzuaren inguruan. Izan ere, aspaldi honetan informazio-eskari asko jasotzen dabilta diziiplina anitzeko osasun zentroetatik. Larradent zentro horietako bat da. SBELTARY dietetika-zerbitzuaz gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzte bertan: Odontologia, Podologia, Masajeak, Psikologia... Dietetika-zerbitzuak zentro horietako zerbitzuak osatzen ditu eta, horren haritik, DISPRONAT enpresaren arduradunak prest daude edozein proiekturen bideragarritasuna aztertzeke.



OSASUNEZ, PISUA GALTZEKO METODOA

GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAKO UNIBERTSITATEAN DIPLOMATUAK (EHU)
HAINBAT URTEKO ESPERIENTZIA

beltary
NATURAL DIET

Esfortzu txikia, sarri

EZ UTZI GERORAKO ORDUA ESKATU

LARRABIDE: LARRABIDE TEL. 944 548 878
DERIO: PARAF. BUSTAMANTE TEL. 944 548 878

**PERTSONALIZATUA,
ERAGINKORRA,
SEGURUA, ...**

Tania Sanchez del Amo, dietista

“Dieta pertsonalizatua egiten diogu pazienteari, eraginkorra eta segurua”



“*Espezialistok diplomaturaren zehar jasotako ezagutzak ezinbestekoak dira nutrizio-arazoei aurre egiteko*”

Nolako ikasketak egin behar dira lanbide honetan aritzeko?

Giza Elikadura eta Dietetika ikasketak Gasteizen ematen dira, EHUn. Hasiera batean titulazio propioa zen eta balioa berton baino ez zuen. Baina ni ikasten hasi nintzenarako diplomaturatzat hartu zen.

Zein da zure eskarmentua?

Arlo honetan duela zazpi urte hasi nintzen lanean, eta SBELTARY proiektuarekin urte bi daramatzat. Ez dugu erraz eduki, hainbat urteetan beste pertsona batzuek egin baitute gure lana. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka hasi zaigu balioesten eta jendeak gero eta inportantzia handiagoa ematen dio nutrizio- espezialista baten aholkua izateari. Espezialistok ezagutza asko jaso dugu diplomaturaren zehar eta horiek ezinbestekoak dira nutrizioarekin zerikusia duen edozein gaitzari aurre egiteko.

Zein metodo erabiltzen duzue?

Nik metodo propioa erabiltzen dut. Pazienteari aurretiko zita ematen diot eta lehenengo kontsultan datu hauek biltzen ditut: ohitura dietetikoak, historia klinikoa, jarduera fisikoa, nutrizio-egoera... Altuera

Dispronat enpresak joan den urrian zabaldu zuen dietetika zentroa Larradent Poliklinikan, Larrabetzun. Tania Sanchez del Amo SBELTARY metodo dietetikoa pazientei hurbiltzen dien profesionala da

ere neurtzen dut, pisua, koipearen portzentajea eta silueta... Ondoren, pazientearen pisu osasuntsua kalkulatu da eta aholku orokorrak ematen zaizkio. Hortik aurrera, dieta lantzen da. Dieta pertsonalizatua beti da eraginkorra eta segurua. Berraztertzeak paziente bakoitzaren beharrak kontuan hartuta egingo dira, baina normalena astero egitea da.

Zein paziente mota duzue?

Gizonezkoak zein emakumezkoak dira, umeak, nerabeak... eta gehienek pisua galdu nahi dute. Dieta astero aldatu ohi

zaie, izan ere monotonia ekidin behar da, pazienteek euren helburua albo batera ez uzteko. Hala ere, gehiegizko pisuaren arazoia kontuan hartu behar da, oso. Gehiegizko pisua zenbait faktoreetatik etor daiteke: ohitura sedimentarioak, elikatze-ohitura txarrak, antsietatea...

Aholkurik ematen duzue beste osasun-arazo batzuetarako?

Bai, hiperkolesterolemia tratatzen dugu, dislipemia, tiroidearen arazoak, hipertentsioa, diabetesa, idorreria... Lehenengo kontsultan zein berraztertzeetan hainbat faktore baloratzen dira: likido-erretentzioa, altua den koipearen portzentajea, bitamina edo mineralen eza... Beharrezkoa bada, eta betiere paziente ados badago, dieta produktuekin osatzen da. Produktuok gutxitu egiten dute likido-erretentzioa, azkarrago egiten dute koipeak metabolizatzea, hezte-igarotzea erregulatzen laguntzen digute...

Nora jo behar dugu?

Edozein kontsulta egin edo zita hartzeko, telefonoz deitu daiteke, edo Derioko Bustamante Parafarmaziara zein Larrabetzuko Larradent Poliklinikara jo. Ordutegi zabalak ditugu eta pazientearen beharrianetara egokitzen saiatzen gara beti. Zerbitzua hurrengo zentro honetan ere ematen dugu: Dietetica Shanti (Basauri), Imagen Integral (Balmaseda), Centro Maite Otaola (Galdakao) eta Kiribil (Azpeitia). Zentro horietako edozeinetan zita hartzeko telefono honetara deitu behar da: 663.85.96.41.



Tania: 663 859 641

Informazioa eta hitzordua eskatu

**“Literaturia” ekainean izango da
Larrabetzun; hala ere, ekimena
Txorierriko beste herrietara ere zabalduko
da apiriletik maiatzera bitartean**

Ekitaldia Literatura Eskolaren baitan sortutako iniziatiba bada ere, proiektua Larrabetzuko beste eragile batzuetara zabaldu dela aipatu beharra dago. Antolatze lanetan hauek dabilta lanean: Arrekikili Euskara Elkarte, Txinpasmendi Gurasoen Elkarte, Hori Bai gartetxea eta Larrabetzuko Udalaren Kultura Batzordea. Iniziatiba guztiz parte-hartzailea eta herrikoa da, beraz.


Baina “Literaturiak” Larrabetzuko muga geografikoak gainditu eta Txorierri osora ere zabalduko da apiriletik maiatzaren bitartean. Antolatzaileak harremanetan dabilta erakunde eta taldeen –Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzua, Institutua eta TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa, beste batzuen artean– proiektua aztertu eta ideiak elkartrukatzeko. Izan ere, “Literaturiak” txorierritar guztiengana ailegatzea du helburuenetarikoa. Hasteko, lau hitzordu ipini dira apirilean.

“Literaturia” Literatura aldarrikatu-ko duen ekitaldi publikoa izango da, eta hitzaren artea jendeari hurbiltzea eduki-ko du helburu nagusizat. Gune honetan euskarazko Literaturarentzat baino ez da

[illegible]



Goian: Literatura Eskolak bost urte daramatza hitzaren artea hermen eta han zabaltzen. Behean: Kirmen Uribek *Bilbao-New York-B* liburua aurkeztu zuen urtarrilean. Koldo Ameztoy ipuin kontalariak saioa eskainiko du apirilean.



“ Hitzaren artea
jendeari hurbiltzea
du helburu nagusi ”

“ Besteak beste,
mahai-ingurua,
errezitaldia eta liburu
aurkezpenak egongo
dira apirilean ”

Apirilaren 22an mahai-ingurua egingo da Larrabetzuko eskolako liburutegian. Mahai-ingurua eskolako gurasoei dago zuzenduta eta bertan haurrak eta gazteak irakurtzera zelan zaletu aztertuko da. Patxi Zubizarreta idazleak hartuko du parte mahai-inguruan.

Hilaren 23rako ekitaldi bi antolatu dira: alde batetik, irakurraldia/errezitaldia egingo dute Larrabetzuko eskolako ume nagusiek, eta bestetik, Mikel Perua-rena idazlearen *Ez obeditu inori* lana landuko da “Literaturaz berbetan” ekimenaren barruan.

Apirilaren 26an, Koldo Ameztoy hel-duentzako ipuin kontalariak saioa eskaini-ko du Hori Bai gaztetxean, eta hilaren 29an Iñigo Aranbarrik *Zulo bat uretan* nobela aurkeztuko du Basaurin. Azken ekitaldi hau Euskarabila Basauriko euska-ra elkartearekin batera antolatu dute. Ekitaldiok Liburuaren Egunaren inguruan egingo dira.

LARRABETZU

LITERATURIA

APRILAREN 22AN Eskolako gurasoentzat mahai-ingurua Patxi Zubizarreta idazlearen nobela <i>Elburuz gero</i> Iñigo Aranbarri idazlearen nobela <i>Zulo bat uretan</i>	APRILAREN 23AN Eskolako ume nagusientzat irakurraldia/errezitaldia Angelines Iñigo Aranbarri idazlearen nobela <i>Ez obeditu inori</i> Mikel Perua-rena idazlearen	APRILAREN 26AN Helduentzako ipuin kontalariak Koldo Ameztoy Hori Bai gaztetxean	EIA EKAITZAREN 5. & EIA 7AN Eskolako ume nagusientzat irakurraldia/errezitaldia Angelines
--	---	---	---

WWW.LITERATURAESKOLA.ORG

Garapen iraunkorra bultzatzeko aholkuak

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak eta Udalsarea 21-ek GAP programaren laugarren edizioa jarri dute martxan, eta Txorierriko Mankomunitateak lehenengo aldiz hartuko du parte bertan. Programak gomendioak ematen dizkie herritarrei ingurumena zaintzen laguntzeko. Ekimenak lau arlo jorratzen ditu: etxeko hondakinak erostea eta kudeatzea, ura, energia eta garraioa. Programaren bidez, kontsumitzaileek ingurumenarekiko ditugun jarrerak aztertu eta neurtzeko aukera izango dugu. Sentsibilizazio-ekimen horretan parte hartzeko gonbidapena luzatu die txorierriarrei Mankomunitateak, eta, dagoeneko, 50 lagunek baino gehiagok baieztatu erantzuna eman dute e-mailez.

Programa era bitan bete daiteke: Interneten bitartez edo paperean. Lehenengoa aukeratzen dutenek apirilaren 5era arte eman dezakete izena www.udalsarea21.net edo euren udalaren webgunean. Eta hau da, hain zuzen ere, arduradunek hobesten duten parte hartzeko modua, "iraunkorrak" delako. Txorierriko herri guztietan liburrak eta kupoiak banatuko dira kanpainaren berri emateko. Programa paperean egingo dutenek kupoiak bidali beharko dute CAP Euskadira, eta horrek materiala aginduko die etxera: galdetegiak eta eskuliburuak, besteak beste. Ekimenean parte hartu duten familiek Nazio Batuen Erakundearen ziurtagiria jasoko dute. Gainera, zozketa batean sartuko dira hainbat sari irabazi ahal izateko.

GAP programa amaitzean, udal bakoitzak herri-

tarren parte-hartzearen portzentajeak jakin ahal izango ditu. Era berean, txorierriarrek ingurumena hobetzeko egindako ahaleginaren emaitza ezagutuko dute. Programak ingurumen, gizarte eta ekonomia arloetan ekartzen ditu onurak. Izan ere, gomendio guztiei jarraitzen bazaie, "%20ko aurrezteak lor daitezke etxe bakoitzean", Carlos Oppe GAP programako Estatuko buruak esan duen moduan. "Ingurumena zaintzeko ez da ahalegin handirik egin behar, ekintza txikiak baizik", adierazi du Asier Ortun GAP programako Euskadiko ordezkariak.

GAP nazioarteko programa da, eta ohiturak aldaraztea du helburu, baliabideak hobeto erabiltzeko eta gure planetak jasotzen duen eragina murrizteko. Ura, energia eta erregai fosilak murrizten lagunduz, CO2 gutxiago isuriz eta jarrera osasungarriagoak hartuz, planeta iraunkorra egiten

GAPkoak

- **Parte hartzeko webguneak:**
Txorierriko herrietakoak
www.udalsarea21.net
- **Epea:**
Idatziz: apirilaren 3an
Interneten bidez: apirilaren 5ean
- **Gomendioak lau arlotan:**
Etxeko hondakinak erostea eta kudeatzea, ura, energia, garraioa
- **Emaitzak neurgai:**
%20 aurrezteak lor daitezke etxe bakoitzean

lagunduko dugu. GAP sistema frogatua da, interaktiboa eta neurtzeko moduko emaitzak ematen dituena. Ekimenari esker, 200.000 pertsonak hobetu dute euren jarraia ikuspuntu ekologikotik. Ekintza soil eta praktikoa batzuetan oinarrituta, GAP gai da ingurumenarekiko daukagun harreman-eredua aldarazteko. Aurreko hiru edizioetan 91 herritako 22.000 familiak hartu zuten parte programan. Horiek etxean 350 tona hondakin gutxiago sortzea, 65 milioi litro ur gutxiago kontsumitzea eta 5.000 tona CO2 gutxiago isurtzea lortu dute.



pro audio
PROFESSIONAL AUDIO SYSTEMS
- Home Cinema Studio -
Eusko Jaurlaritzaren IF
100% erantsita
Aholkulari: gila 20.000.000
www.proaudio.net
audio profesionala

- 3D TV
- ALKORCOTE
- AVIDA
- CANTON
- CANTON
- CANTON
- CANTON

Itxako Valladolera
Ongizatea eta osasuna
100% NATURAL
Queso Piquillo
queso de cabra
Itxako Queso Piquillo
100% NATURAL
100% NATURAL

Chelito Adobado
Adobado de pollo
100% NATURAL
100% NATURAL
100% NATURAL
100% NATURAL
100% NATURAL
100% NATURAL

Derioko Zerbitzu eta Merkaritzarako elkartea



Ezkontzetan-eta
zuen opariak
Derion ere bai!




“Ohiko antzerkia hil da”

Ordubete ematen du egunero autobusez Getxoko Antzerki Eskolara joateko. Baina Juan Yusteri berdin dio, interpretazioa bere pasioa baita, “betidanik barruan eraman” duen gauza bat, alegia. Lezamarrak aurten amaituko du karrera, eta antzerkia nahiago du zinema baino. Horregatik, Laiak Emakumeen Taldeak laguntza eskatu dio bere urteroko antzezlan aurrera eramateko.

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza



Zelan hasi zinen arte dramatikoak ikasten?

Iruñera joan nintzen Ikus-entzunezko Komunikazioa ikastera, baina utzi egin nuen. Antzerkia betidanik gustatu izan zait, eta zaletu mailan ibili naiz. Hori dela-eta, Iruñetik bueltan, antzerkia ikastea erabaki nuen.

Zer esan zizuten etxean aktorea izan nahi zenuela esan zenienean?

Esatea kostatu egin zitzaidan, baina gura-
soek primeran hartu zuten. Beti utzi didate
nahi dudana egiten. Azken batean, betida-
nik izan nahi izan dut aktorea, barruan era-
man dudak gauza bat da.

Aktore lanetan zer da garrantzitsuagoa, talentua izatea ala ondo prestatzea?

Biak dira garrantzitsuak. Batzuek talentua dute jaio direnetik, eta beste batzuek ikasi behar dugu. Hala ere, talentua ere landu behar da, bestela nekez lortzen da aktorea

izatea. Ni ez naiz oso talentutsua, baina gogor egiten dut lan.

Arte dramatikoak ez da karrera ofizial bat, ezta?

Hemen, ez, baina Estatuan, zenbait lekutan badaude eskola homologatuak: Madril, Bartzelona, Gijon... Dena dela, arte dramatikoko eskola bat instituzionalizatzen baduzu, bere sena galtzen du: irakasleak funtzionario, eta ikasleak zenbaki bihurtzen dira. Artea eta erakundeak ez datoz bat.

Zer ikasten duzu eskolan?

Interpretazioa, dantza, mugimendua, kantua, historia... Denetarik. Eta gu geu sortzaileak izateko trebakuntza eta bultzada ere ematen digute. Gainera, batzuetan aste biko tailerrak antolatzen dira kanpotik etorritako irakasleen eskutik. Askoz bereziagoak dira horiek: clown, musika.... Beste alde batetik, arte dramatikoaz gain, dantza

*“Aktoretzat harten dut
nire burua, baina dantza
klasikoa zein garaikidea,
eta kantu lirikoa
ere ikasten ditut”*

klasikoa zein garaikidea, eta kantu liriko
ere ikasten ditut, baina eskolatik kanpo.
Nik aktoretzat hartzen dut nire burua; gai-
nontzekoa heziketa osagarria da.

Antzerkia beti omen dago krisian. Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Langabezia nagusi da. Espezializazioaren bat aukeratu ahal da, eta horren arabera, irtenbidea erraza ala zailagoa da. Telebista

[illegible][illegible]



eta zinema aukeratuz gero, Madrilenedo castingak egin behar dira, besterik ez duzu; antzerkia hautatuz gero, aldiz, aukera gehiago dago: zure konpainia sortu ahal duzu, eta testuak idatzi (ala idatzitakoak hartu) eta taularatu.

Eta zuk zein nahiago duzu?

Antzerkia, duda barik. Beste era batean egiten da lan: zineman 20 segundoko hartualdiak grabatzen dira eta jarraipen kronologikorik ez duenez, aktorearentzat zailagoa da emozioak ondo helaraztea. Beste alde batetik, zinemak duen glamourra ez zait batere gustatzen.

Non ibiliko zara 10 urte barru?

Auskalo! Nire arte-irizpideei jarraituz, antzezlanak egin nahiko nituzke, bai horixe! Epe laburrean, aurten amaituko dut eskolan, eta apur bat gehiago ikasten jarraitu nahi dut: dramaturgia, sormen

eszenikoa, zuzendaritza... Testu batzuk dauzkat idatzita, eta nire estiloa hobetu nahi dut. Izan ere, nahiago dut nik neuk sortu, beste edonork idatzi baino.

Eta zeintzuk dira zure arte-irizpide horiek?

Nire ustez, ohiko antzerkia hil da. Antzerkia uztartu behar da beste arteekin – poesia, pintura... – erabateko artea lortzeko. Nik arte antisoziala dut gustuko, eta publikoa hunkitu nahi dut. Egileak nolako mezua zabaldu nahi duen izan behar du kontuan, baina baita zelan egin ere: nire ustez, era arriskutsua eta apurtzailea nagusitu behar da, entzuleriarengana heltzeko erarik onena horixe baita. Egile batzuek esaten dute bakoitzak nahi duena ulertu behar duela, baina ez nago ados; nik azalduko dizut nahi dudana, eta zuk argi eta garbi ulertuko duzu. Subjektibitatea atsegin dut. Jendea telebistan ikusten duena ikustera joaten da antzokira, entretenimendua ikustera, baina nik ez dut hori ematen. Jendeak nekez onartzen ditu horrelako proposamenak, baina horixe da niri gustatzen zaidana.

Zeintzuk dira aktore edo egilerik kuttunenak?

Antonin Artaud edo Pier Paolo Pasolini gustuko ditut: oso iraultzaileak izan dira euren garaietan. Gaur egun, Rodrigo García eta Angélica Liddell, batez ere, atsegin ditut.

Prest zaude kanpora joateko, edo hemen gelditzea gustatuko litzaizuke?

Madrilera joango nintzateke, aukera gehiago dagoelako, hots, antzoki gehiago. Hemen, ez dago ia aretorik, Bilbon eta Barakaldon izan ezik, eta oso zaila da bertan sartzea. Gainera, antzerki alternatiboa egiteko hiruzpalau antzoki baino ez daude.



Lehenengo pausuak

Juanek ez du oraindik karrera amaitu, baina lantxo bat atera zaio. Izan ere, Laiak Emakumeen taldeari laguntza eman dio, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta aurkeztu duten antzezlanaren prestaketan. “Ama elkartearen kidea da eta laguntza eskatu zidaten”, azaldu digu Juanek. Hasieran ez zen erraza izan. “Lehenengo saioak oso txarto atera ziren, nire lanean konfiantzarik ez zutelako. Gainera, helduak direnez, oso pentsamendu finkoak dituzte eta nekez konbentzitzen dituzu gauza ezberdinak egiteko”. Hala ere, ondo moldatu dira azkenean, eta harremana oso “aberasgarria” izan dela dio Juanek.

Athleticen lagunarterik “Politena”

Athletic zainetan daroagu bizkaitarrok. Futbol taldea baino gehiago da. Horregaitik, lagunarte gehien dituan taldeetako bat da Estatuan. Txorierrin be badagoz, eta beste bat sortu dabe Larrabetzun: Iraizoz lagunartea. Horrek Politena tabernan dau egoitza, eta han Igor del Valle presidenteagaz egon gara berbetan.

Testua: Gaizka Eguskiza / Argazkiak: Iraizoz lagunartea

Martiaren 5ean. Bizkaia osoa aje zuri-gorriagaz izartu da. Jai eguna da gaur Athletic barruan daroagun guztiontzat. Joaquín Caparrosen mutilek 3-0 irabazi deusie Sevillari, eta lehenengo aldiz azken 24 urteotan Errege Kopako finalerako txartela lortu dabe. Bartzelonaren kontra egingo dogu bertan, baina hori beste kontu bat izango da. Ospakizunetan ibili gara gabeen, eta goizean nora, eta Athleticen lagunarte berri batera joan da Aikor! aldizkaria, garaipena gozatzeraz. Larrabetzun egin dabe –Politena tabernan–, eta Gorka Iraizoz Athleticen atezainaren izena daroa.

Baina, zergaitik Gorka? “Tabernan Athleticen inguruan eztabaidatzen gabildu beti, eta Iraizoz batzuetan etorri izaten da tabernara bazkaltzera, Xabi Díez Athleticen Fundazioaren prestatzaile fisikoa-gaz. Hori ikusita, lagunartea sortzea pentsatu genduan”, dino Igor del Valle presidenteak. “Alkartea aitzakiatzat hartuta, Iraizoz herrira urtean bitan etorriko dalakoan gagoz. Bazkaria antolatuko dogu eta beragaz berba egiteko aukerea izango dogu”. Gorkak primeran hartu dau. “Oso jatorra da. Batzuetan uste dogu futbolariak estralurtarrak dirala, baina hori gezurra da, Gorkaren kasuan, batez be”. Pertsonalki ez eze, profesionalki be estimatzen dabe jokalaririk nafarra lagunartekoek. “Atezain ona da, eta atetik kanpo ere primeran moldatzen da. Athleticen orain arte ez dau horrelakorik eduki. Eta lotsatia danez, agintzeko gaitasunik ez dauela emoten dau, baina ez da egia. Hori oso ona da taldearentzat”.

Bi urte pasa dira, lagunartearen kontuagaz hasi ziranetik, eta hasieran herriak ez eban konfiantza handirik



eurengan. “Asanblea egin genduan, eta 16 lagun baino ez ziran etorri”. Apurka-apurka aurrera joan dira, baina ibilbidea korapilatsua izan da. “Lagunarte ofiziala gara, baina horrek beharra eskatzen dau, izapide asko egin behar diralako”. Behar horretan oso lagungarria izan da kide pare baten ahalegina. “Administrazio

aldetik, Idoiak (idazkaria) eta Igonek (bokala) hartu dabe ardura: telefonoz deitu, izapideak bete, estatutuak eta asanbleatan esaten dana euskarara itzuli...”.

Lagunartea Larrabetzuko frontoian aurkeztu da martxoan, Josu Loroño kazetari eta Joseba Etxebarria aktorearen eskutik. Hainbat lagun hurbildu ziran, –250, hain zuzen be–, baita zenbait komunikabide be: “Marca, Mundo Deportivo eta Deia egunkariak, Bizkaia eta Euskadi Irratia, Gernikako Onda Vasca... Patxi Alonso aipamena eta guzti egin eban”, esan dau Igorrek. “Berrogeita hamar bazkide gara eta danetarik dogu: gazteak, helduak, neskak, mutilak, langileak, enpresariak... Gehienak Larrabetzukoak dira, baina bar-



Emakumea eta baserria

Mari Carmen Llona Derioko Aretxagane baserrikoa da, eta Fermin Atelagaz ezkondu zanetik soloa lantzea da bere lana. Berrogeita hiru urte pasau dira ordutik hona.



Eguna goiz hasten da Aretxagane baserrian; askoz goizago lehen, ganadua be euki eben eta. “Senarra goizeko 6etan altxaten zan behiak jasteko eta abereez arduratzeko. Beharretik arrastiko 3etan heltzen zan, eta 5etan, barriro solora”. Iluntzera arte. Izan be, soloak ez dau ordutegiz ulertzen; eta askoz gitxiago, jaiegunez. “Eguno ez gara joan oporretara”.

Negutegiak dagoz Aretxaganen, baina ortuariak kanpoan be landatzen ditue. Daretarik hartzen dabe: zerbak, patatak, porruak, kinpulinak, berakatzak, lekak, indabak, artoa, eskarolak, txikoria... Orain lurra

prestatzen dabilz, hurrengo sasoiari begira patatak, kinpulak, porruak... landatzeko. Hori guztia antxinako moduan egiten jarraitzen dabe: ez dabe produktu kimikorik erabiltzen.

Uda idorra euki dogu eta uzta ez da izan espero bezain ona. Halanbe, oso udagoien euritsua egin dau eta, ondorioz, usteldu egin dira landara asko. Baina hurrengo uzta hobeagoa izateko itxaropena dau Mari Carmenek. “Eguraldiari adi egoten gara, klimatologiara egokitu beharra daukagu”. Kuarta-tenporei jarraitzen deutsee oraindino, eta, esan deuskuenez, asmau


egiten dabe. “Senarrak sua egiten dau eta haizeak nora jotzen dauan, jakiten dogu eguraldi ona edo txarra egingo dauen”.

Kooperatibak, etorkizuna

Mari Carmenek saltoki bat dauka Bilboko Erriberako plazan. Hogeita hamar urte daroaz bertara joaten saltzera, eta ezin dala kexau dino. “Aurrera jarraitzeko ateraten dogu”. Halanda be, eta kalitatearen aldeko apustua egiten daben bezeroak egon arren, salmentak gitxitu egin dira orokorrean. Handizka saltzaile asko dagoz eta ekoizle txikiek prezioak jaitsi beharra izaten dabe lehiakorrek izango badira. Gainera, gaur egungo krisi ekonomikoak be ez dau asko laguntzen. “Plazea orain 25 urte inguru egoan goren puntuan, uholdeak izan baino lehen; orduan bai egiten genduzala salmenta onak”.

Bere iritziz, oso laguntza gitxi jasoten dau ekoizle txikiak erakundeen aldetik. “Egon, badagoz laguntzak, teorianta. Hareetako bat eskatzen dozunean, trabak baino ez deusuezalako ipinten. Eta akabuan, laguntza barik lotzen zara. Handiei emoten deutseez”. Horregaitik baltz ikusten dau nekazaritza sektorearen etorkizuna; ez da arlo erakargarria gazteentzat. “Ekoizle txikiok dogun konponbide bakarra kooperatibak sortzea da, ustiapenek ekarten dituen gastuei aurre egin gura ba-deutsegu”.

Emakumeak behar isila egin dau baserrian mende luzeetan: sukaldean, soloan, kortan, seme-alabak hazten... Askotan ahazten dogun beharra, gitxitan baloratzen dana. “Gutaz ahazten dira lehen sektorean”.



guraso.com

Gurasoen premiak asetzeko webgunea

Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak eta Goiena Komunikazio Zerbitzuak *guraso.com* proiektua jarri dute abian. Gurasoei zuzendutako webgunea da eta bertan eurentzat interesgarriak diren hainbat gai topa ditzakete: teknologia berriak, osasuna, dirulaguntzak, sexualitatea edo hiztegiak, beste batzuen artean.

Webgunea euskara hutsean egin dute eta atal nagusi bi ditu. Atal finkoan gurasoentzat interesa izan dezaketen gaiak buruzko artikulatuak biltzen dira; eta atal dinamikoan, hainbat kolaboratzailek gai ezberdi-

nen gainean idatzitako artikulatuak jasotzen dira. Martxan sortzen diren albisteak, agenda, zorionak emateko txokoa eta argazki galeria ere badaude atal horretan.

Guraso.com webgune interaktiboa da. Erabiltzaileak edozein galdera egin diezaizke webguneko kolaboratzaileei eta, era berean, ekitaldiak sar ditzake agendan, edo albisteak eskegi.

Egitasmoa martxoan aurkeztuko dute Donostian; hala ere, Euskal Herriko ikastetxe eta guraso elkarteak aurkezteko ere aurreikusitako arduradunek, bailaraz bailara.

12,5 gigako haririk gabeko teknologia garatu dute

Europako ikertzaile talde batek segundoko 12,5 gigako abiadura har dezakeen haririk gabeko teknologia bat garatu du: mm-wave. Mikrouhin bidezko zuntz optikoa- ren antzekoa da, eta 30 Ghz-etik 300 Ghz- era bitarteko espektroa erabiltzen du, 10 milimetroko uhin-luzera duela. Teknologia honek erabilera komertzial eta militar- rak ditu, eta astronomian ere erabil daiteke. Proiektua Iphobac egitasmoaren baitan egin da. Egitasmoak hiru urte iraungo ditu eta bertan Europa Batasuneko erakunde akademikoek, enpresek eta zentro teknolo- gikoek hartzen dute parte.



Bilbo, blog eta startup-en hiriburua

Apirilaren 24an eta 25ean nonick09 ekimena izango da Bilbon. Nazioar- teko epaimahai batek Europako blog eta interneteko *startup* onenak aukera- tu ditu bertan eta horrezaz gainera, sarerako bideoetan aditu garrantzi- tsuenak hartuko dute parte ekimene- an. Adituok gai bi izango dituzte min- tzagai: gizarte sareen audientziaren neurketa eta bideo-formatuko blogen bidez famatu bihurtu diren lagunak. Nonick *eitb.com*-ek eta SPRIK antolatuta dute, eta Alianzo enpresaren laguntza jaso du.

aldeko ne
hartz klinika
Tel: 94 454 45 07

Aruska Prieto Aguilar
Odontologoa

Orduak / Lurralde
amplioa / Oso jasangarria

1. Espazioa gero
modurazko / Gero
-Amplioa / Gero

-Operatiboa:
amplio

BESTORRENE
kale-tobena

plaza / Gero / Gero

Amplioa, 1
amplioa / Gero
94 454 45 07

GOYO
GIZAKIEN GIZAKIEN

1. Espazioa gero
modurazko / Gero
-Amplioa / Gero

Amplioa, 1
amplioa / Gero
94 454 45 07

Elizalde
Bilbo / Gero

Amplioa, 1
amplioa / Gero

Amplioa, 1
amplioa / Gero

Elizalde
Bilbo / Gero

Amplioa, 1
amplioa / Gero

Amplioa, 1
amplioa / Gero

MARMOLCINTZA
GOYO
GIZAKIEN GIZAKIEN

Amplioa, 1
amplioa / Gero

Amplioa, 1
amplioa / Gero

Zamudiotorreko jauntxoak

Historiak dinoen bezala, Fortún Garcés errege nafarraren semeagaz batera –Gabiria de Tolosako kondea- nekazari asko etorri ziran Nafarroatik Zamudiora. Kondearen ondorengoak, Galindo Ordoñezek, San Martín eleizea eta Zamudiotorrearen eragiteko agindua emon eban 930. urtean. Galindo Ordoñez Asturiaseko Noreñako kondearen ondorengo batez ezkondu zan, eta ezkontza horretatik Fortún Galindez jaio zan, Alfonso VII. erregeak gizon-aberastzat hartu ebana, eta Maria Ortiz de Basurtogaz ezkondu zana. Emakumea Ayalako jauntxoaren ondorengoa zan.

Zamudio familiaren jatorri nobleak errealtateagaz egin eban topo XIII. mendearen amaieran, neba-arreba honeen esutik: Ochoa Ortiz, Ordoño, Fortún Sanchez, Iñigo Ortiz, Mari Sanchez eta Juana de Zamudio.

Lehenengoak ez eban seme-alabarik euki, eta familiaren agintea Ordoñok hartu eban. Ordoñok beste dorre bat altxatu eban Olariaga auzoan; eta Fortún Sanchezek etxe barria eregi eban Susunagan.

Hedapen prozesu hori abagune biri esker izan zan posible. Alde batetik, Zamudio familiako bat foru-alkatea zan eta ondorioz, familiak esku hartzea eban Jaurerriko organizazio administratiboan. Eta beste alde batetik, oso ezkontza-politika egokia eroan eben aurrera. Halan, Or-

doño Teresa de San Julianegaz ezkondu zan. Teresa Ayalako jaun-anderearen alaba zan eta ezkontzaren bidez Salcedoko dorreen jabetza hartu eban Ordoñok. Gainera, horren semea Mencia de las Ribas-egaz ezkondu eta Ribas, Ibargoen eta Ochandategi etxeak jaso zituan.


Gorrotoa, Butronekoei

Zamudiokoa Bizkaiko leinurik boteresuenetarikoa izan zan XIV. mendearen erdialdean eta agindupeko lurraz jatorrizko eskualdean ezeze Salcedo eta Orozkoko bailaretan be izan ebezan. Halanda be, egoera pribilegiatu horrek gitxi iraun eban.

Ordoñok lau seme eta alaba biren artean banandu eban bere ondarea. Historialarien eritziz, erabagi bitxia izan zan Ordoñok hartu ebana, garai hatan une latzak bizi ziralako ekonomia arloan, eta logikoena leinuaren bata-

sunari eustea izango zan.

Sancho Ortiz familiako buru bihurtu zan eta horri beste Ordoño batek jarraitu eutsan XV. mendean. Ordoñok parte-hartze aktiboa izan eban Butron familiaren aurkako burrukaldietan. Butronekoak Zamudiokoen etsai amorratuak ziran eta 1443. urtean bigarrenen zenbait dorre, urkamendi eta jauregi suntsitu ebezan. Baina leinuaren buru barriak, Sancho Ortizek –Uribeko merinoa zanak-, berehala berregi ebezan. Sancho Ortiz Juana de Butonagaz ezkondu zan, zirkunstantziek behartuta. Halanda be, ezkontzak ez eban familia biren arteko gorrotoa baretzea lortu. Liskarrak bandokideen arteko guden amaierak lasaitu ebezan.



FOXPOLIN
POLYMER COATINGS

MIGUEL
MIGUEL
MIGUEL

multiprecio
Rakal


SAN ISIDRO
ESPOSICION, KUTXAK, BAIKURTZEAK

IMPORTACION ETA ALIMENTA

Mascolas Maider
Mascolas Maider

Lezama

Argazkia Lezaman egin zan. Data, leku zehatza edo baten bat eza-
gutzen badozu jakinarazo. Zelan? 944523447 telefono-zenbakira
deituz, aikortxori@aikor.com helbidera idatziz edo www.aikor.com >
[txokoak](#) > [Atxinako argazkiak](#) atalean erantzuna itxiz.



၁၆၆၆

Zernikelen Technologie Partner
 Tel. 066 - 26760
 E-Mail: info@zernikelen.com
www.zernikelen.com

BASERRI *menua*

Leiodontomys Felskyella sp. nov. (Family: Muridae)
 (Fig. 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 59, 60, 61, 62, 63, 64, 65, 66, 67, 68, 69, 70, 71, 72, 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79, 80, 81, 82, 83, 84, 85, 86, 87, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 98, 99, 100, 101, 102, 103, 104, 105, 106, 107, 108, 109, 110, 111, 112, 113, 114, 115, 116, 117, 118, 119, 120, 121, 122, 123, 124, 125, 126, 127, 128, 129, 130, 131, 132, 133, 134, 135, 136, 137, 138, 139, 140, 141, 142, 143, 144, 145, 146, 147, 148, 149, 150, 151, 152, 153, 154, 155, 156, 157, 158, 159, 160, 161, 162, 163, 164, 165, 166, 167, 168, 169, 170, 171, 172, 173, 174, 175, 176, 177, 178, 179, 180, 181, 182, 183, 184, 185, 186, 187, 188, 189, 190, 191, 192, 193, 194, 195, 196, 197, 198, 199, 200, 201, 202, 203, 204, 205, 206, 207, 208, 209, 210, 211, 212, 213, 214, 215, 216, 217, 218, 219, 220, 221, 222, 223, 224, 225, 226, 227, 228, 229, 230, 231, 232, 233, 234, 235, 236, 237, 238, 239, 240, 241, 242, 243, 244, 245, 246, 247, 248, 249, 250, 251, 252, 253, 254, 255, 256, 257, 258, 259, 260, 261, 262, 263, 264, 265, 266, 267, 268, 269, 270, 271, 272, 273, 274, 275, 276, 277, 278, 279, 280, 281, 282, 283, 284, 285, 286, 287, 288, 289, 290, 291, 292, 293, 294, 295, 296, 297, 298, 299, 300, 301, 302, 303, 304, 305, 306, 307, 308, 309, 310, 311, 312, 313, 314, 315, 316, 317, 318, 319, 320, 321, 322, 323, 324, 325, 326, 327, 328, 329, 330, 331, 332, 333, 334, 335, 336, 337, 338, 339, 340, 341, 342, 343, 344, 345, 346, 347, 348, 349, 350, 351, 352, 353, 354, 355, 356, 357, 358, 359, 360, 361, 362, 363, 364, 365, 366, 367, 368, 369, 370, 371, 372, 373, 374, 375, 376, 377, 378, 379, 380, 381, 382, 383, 384, 385, 386, 387, 388, 389, 390, 391, 392, 393, 394, 395, 396, 397, 398, 399, 400, 401, 402, 403, 404, 405, 406, 407, 408, 409, 410, 411, 412, 413, 414, 415, 416, 417, 418, 419, 420, 421, 422, 423, 424, 425, 426, 427, 428, 429, 430, 431, 432, 433, 434, 435, 436, 437, 438, 439, 440, 441, 442, 443, 444, 445, 446, 447, 448, 449, 450, 451, 452, 453, 454, 455, 456, 457, 458, 459, 460, 461, 462, 463, 464, 465, 466, 467, 468, 469, 470, 471, 472, 473, 474, 475, 476, 477, 478, 479, 480, 481, 482, 483, 484, 485, 486, 487, 488, 489, 490, 491, 492, 493, 494, 495, 496, 497, 498, 499, 500, 501, 502, 503, 504, 505, 506, 507, 508, 509, 510, 511, 512, 513, 514, 515, 516, 517, 518, 519, 520, 521, 522, 523, 524, 525, 526, 527, 528, 529, 530, 531, 532, 533, 534, 535, 536, 537, 538, 539, 540, 541, 542, 543, 544, 545, 546, 547, 548, 549, 550, 551, 552, 553, 554, 555, 556, 557, 558, 559, 560, 561, 562, 563, 564, 565, 566, 567, 568, 569, 570, 571, 572, 573, 574, 575, 576, 577, 578, 579, 580, 581, 582, 583, 584, 585, 586, 587, 588, 589, 590, 591, 592, 593, 594, 595, 596, 597, 598, 599, 600, 601, 602, 603, 604, 605, 606, 607, 608, 609, 610, 611, 612, 613, 614, 615, 616, 617, 618, 619, 620, 621, 622, 623, 624, 625, 626, 627, 628, 629, 630, 631, 632, 633, 634, 635, 636, 637, 638, 639, 640, 641, 642, 643, 644, 645, 646, 647, 648, 649, 650, 651, 652, 653, 654, 655, 656, 657, 658, 659, 660, 661, 662, 663, 664, 665, 666, 667, 668, 669, 670, 671, 672, 673, 674, 675, 676, 677, 678, 679, 680, 681, 682, 683, 684, 685, 686, 687, 688, 689, 690, 691, 692, 693, 694, 695, 696, 697, 698, 699, 700, 701, 702, 703, 704, 705, 706, 707, 708, 709, 710, 711, 712, 713, 714, 715, 716, 717, 718, 719, 720, 721, 722, 723, 724, 725, 726, 727, 728, 729, 730, 731, 732, 733, 734, 735, 736, 737, 738, 739, 740, 741, 742, 743, 744, 745, 746, 747, 748, 749, 750, 751, 752, 753, 754, 755, 756, 757, 758, 759, 760, 761, 762, 763, 764, 765, 766, 767, 768, 769, 770, 771, 772, 773, 774, 775, 776, 777, 778, 779, 780, 781, 782, 783, 784, 785, 786, 787, 788, 789, 790, 791, 792, 793, 794, 795, 796, 797, 798, 799, 800, 801, 802, 803, 804, 805, 806, 807, 808, 809, 810, 811, 812, 813, 814, 815, 816, 817, 818, 819, 820, 821, 822, 823, 824, 825, 826, 827, 828, 829, 830, 831, 832, 833, 834, 835, 836, 837, 838, 839, 84

© 2005 by Springer Science + Business Media, Inc.

29 €

THE 2000 EDITION

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:

Bi lagunentzako tratamendua:

TXOKOTERAPIA

(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

Zenbat bikotek hartu dute parte Loiuako Padel Txapelketan?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

–Postaz: Aresti kalea 2, 48170, Zamudio

Aurreko erantzuna: *Onna* antzezlan

Irabazlea: Daniel Alonso

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK

La lutte finale

J. Agirre. Azpeitiar idazleak, "Joseba Jaka" bekaren bitartez idatzitako eleberria dogu.

Uretan lez

Y. Arrieta

Gertakarien urtzea

L. Garde

Hesi gabeko soroak

I. Goikoetxea

HAUR ETA GAZTE

Rita poloan

M. Valverde

Olatueak loretan

A. Kazabon

Elurte bateko ipuinak

P. Aristi

Piraten uhartea

J. Eugi. Martin Legarreta marinela gazteak ezusteko handia izango dau bere lehenengo itsas bidaian: Juan Agirreandia pirata ospetsua ezagutuko du. Haregaz batera piraterian ari-tuko da eta halan, bera be pirata bihurtuko da.

MUSIKA

Haize oihalak

P. Ramirez

Lunas, Soles & Elefantes

Marta Sanchez Trio. Jazz musika

Gainsbourg gainbegiratz

Zenbait musikari

Rose Escargot

Kerobia

DENBORA PASA

LETRAZOPA

B	G	O	I	T	I	B	E	R	E	A	X	F
T	D	S	T	Y	E	D	U	B	Y	L	Z	U
A	E	X	T	U	K	U	K	F	Z	E	J	S
B	X	N	E	E	I	X	F	A	E	D	K	L
S	H	P	A	Y	O	A	Y	J	Ñ	R	P	O
U	A	D	R	U	E	Ñ	K	G	K	O	K	Ñ
A	T	Z	P	D	X	I	O	L	J	K	R	I
O	R	M	N	E	N	D	R	O	R	P	H	O
X	S	B	H	A	B	N	R	R	G	T	N	M
T	F	G	K	F	I	A	O	I	U	I	J	L
O	H	O	R	P	K	L	A	J	M	T	S	N
B	S	G	M	O	L	Ñ	M	H	Z	L	I	G

E	A	S	O	G	A	Ñ	Y	K	K	P	L	R
P	M	Y	I	X	I	J	U	N	H	A	S	T
Z	S	A	L	Y	P	I	J	T	Y	O	Z	F
T	K	R	K	J	M	U	Y	A	G	A	R	A
X	B	O	H	U	G	X	R	N	F	E	L	S
B	P	U	Ñ	L	R	R	N	K	U	T	B	M
H	R	A	R	R	E	X	I	K	O	U	F	
P	S	O	K	F	F	Ñ	G	K	E	L	N	A
E	A	Z	D	M	X	E	D	I	D	E	E	B
R	P	N	T	B	D	E	H	L	I	P	K	B
Z	A	E	M	O	G	A	R	I	T	J	H	A
Ñ	T	A	G	B	J	N	I	M	D	M	L	T

Umeekaz jarraituz. Ia gai zaren umeen olgetakaz zerikusirik daben beste 7 berba

aurkitzen* goiko letrazopan. Kontuan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoak.

Ezkerraldean AIKOR! 79. zenbakiaren erantzuna. Umeen olgetakaz zerikusirik daben 7 berba.

EUSKAL HERRIEN 4. GENERAZIOA



Antzerkia eta filmak

Sondika

–Ipuin kontalaria. Apirilaren 24an, 18:00etan, liburutegian.

Zamudio

–Liburuetako iratxo, umeentzako antzezla. Apirilaren 25ean, liburutegian.

–The history boys, Arriaga antzokian. Apirilaren 30ean, 20:00etan. Izena ematea: apirilaren 24ra arte.

Lezama

–Filma. Domeka guztietan, Gaztegunean.

Larrabetzu

–Ipuin kontalaria. Apirilaren 2an, 18:00etan, Anguleri Kultura Etxean.

–Umeentzako zinea. Apirilaren 25ean. Txikientzako saioa, 16:00etan; eta nagusientzako, 18:00etan.

Erakusketak

Sondika

–“Jon deunaren jaiak 2009-Sondika” Herriko Jaietako XXII. Kartel Lehiaketan aurkeztutako lanak. Apirilaren 1etik 30era, Erakusketa Aretoan.

Hitzaldiak

Derio

–“Ipuina eta hezkuntza sentikorra”, Juan Carlos Alonsoren eskutik. Apirilaren 24an, 17:30ean, liburutegian.

Zamudio

–Perretxikoak. Apirilaren 30ean, 19:00etatik 21:00etara, Zamudiotarren.

Ikastaroak

Sondika

–CDak gordetzeko feltrozko kutxatxoak. Apirilaren 15ean, 18:00etan, Gaztetxean.

–Areazko koadroak. Apirilaren 17an,

18:00etan, Gaztetxean.

–Sendabelarrak eta prestakinak. Maiatzaren 9tik ekainaren 13ra, Kultura Areto IIan. Izena ematea: martxoaren 30etik apirilaren 3ra, liburutegian.

–Baile moderna, gazteentzat. Apirilaren 23tik ekainaren 18ra, Gaztetxean. Izena ematea: apirilaren 6ra arte.

Zamudio

–Sendabelarrak. Apirilaren 20, 22, 27 eta 29an, Lagatzu euskara elkarteak antolatuta. Izena ematea: apirilaren 16ra arte (944523447, lagatzu@lagatzu.org).

Lezama

–Tailerrak. Zapatuetan, Gaztegunean.

Larrabetzu

–Autodefentsa ikastaroa. Apirilaren 25ean, goizean zein arratsaldean. Informazio gehiago, Kultura Etxean.

Irteerak

Sondika

–Herri Urrats (Senpere). Maiatzaren 10ean. Izena ematea: apirilaren 20tik maiatzaren 7ra, liburutegian.

–Ibilaldia (Galdakao). Maiatzaren 31n. Izena ematea: apirilaren 20tik maiatzaren 28ra, liburutegian.

Derio

–Asturias. Maiatzaren 1eko zubian. Izena ematea: apirilaren 1etik 8ra, Etxebizitza eta Herriarrentzako Informazio Bulegoan.

Zamudio

–Sopuerta (txirrindulari itzulia). Apirilaren 5ean.

–Erandio (txirrindulari itzulia). Apirilaren 25ean.

–Ancres, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Apirilaren 30etik maiatzaren 3ra. Izena ematea: 94 608 82 85.

–Herri Urrats (Senpere). Maiatzaren 10ean. Izena ematea: maiatzaren 7ra arte.

–Ibilaldia (Galdakao). Maiatzaren 31n. Izena ematea: maiatzaren 28ra arte.

Lezama

–Llanaves de la Reina. Apirilaren 9tik 13ra. Gailur mendi taldeak antolatuta.

–Madrilgo mendilerroa. Apirilaren 9tik 13ra, Zorribike taldeak antolatuta.

–Irteerak, Pazkoko Astean, Gaztegunean.

Kirolak

Txorierri

–II. Emakumezkoen Lasterketa, Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak antolatuta. Apirilaren 19an, 10:00etan, Sondikako udaletxetik. Babesleak: Derio, Sondika, Loiu eta Zamudioko Udalak.

Musika

Sondika

–Habemus Ratas. Apirilaren 8an, 19:00etan, Gaztetxean.

Derio

–Udaberriko kontzertu korala, Ipar-Alde abesbatzak antolatuta. Apirilaren 18an, 19:30ean, San Isidro elizan.

–Rafa Rueda. Apirilaren 24an, 20:30ean, Gurea Aretoan. Sarrerak: 8 euro; Etxebizitza eta Herriarrentzako Informazio Bulegoan, salgai.

Bestelakoak

Derio


–Liburuaren Nazioarteko Eguna. Apirilaren 23an, liburutegian.

–Herriaren 320. urteurrena antzezteko boluntarioen bilera. Apirilaren 24an, 19:30ean, Larrabari baserrian.

Larrabetzu

–Txakolinaren Eguna. Apirilaren 5ean.

–Liburuaren Nazioarteko Eguna. Apirilaren 20tik 24ra.



GARAIOLTZA, S.A.

INDUSTRIAK ERATUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATUNTZA-LOKALAK ETA GARAJAK


LEHEN MAILAKO ERATUNTZAK, LEHIAK HANIHAK,

ORDAINTZEKO DIRAZTASUN ILANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Udaltzaia zuzena, 128 (bidea)
Lezama (Bizkaia)

**Qure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Taldean atalegi handia egiten dugu karketa alorrean hegazkin-motor eragikortasunak eta abarretan. ITP[®] gurekiko zureko dute akordioa eta eragileak, behar diren teknologia berriak erabiltzeko aserarekin, indar handiaren bitartezko truke-lana egiten dugu. ITP herrialde, ingurumen alorreko taldearen integritate jakin duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa gara. Ingurumeneko eragileekin elkarlanean, beraz, gure enpresa jakin duen teknologia berria erabiltzen ari gara.



dek



www.korrika.org

badator!

denok Tuterara

Tutara-Gastelz 09
martxoaren 26tik apirilaren 5era